

BA AL DAGO EKINTZA SINDIKALIK SINDIKATUEZ HARAGO? EHUKO PREKARIOEN KOORDINADORAREN ESPERIENTZIA (2023-2024)

Is there union action beyond the trade unions? Experience of the Precarious Workers' Coordinator of the University of the Basque Country (2023-2024)

GALDER SIERRA, JOSEBA PERMACH, EKI ETXEBARRIA*, JON AZKUNE,
IÑAKI ZALDUA, MIREIA IRAZOLA, IRATI AYESTA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, España

RESUMEN

Durante el curso 2023-2024, un ciclo de protesta que no se había visto desde 2006 condicionó el día a día del personal docente e investigador de la Universidad del País Vasco (EHU). Como suele ser habitual en los conflictos laborales, la participación de los sindicatos fue notable. Sin embargo, los sindicatos padecen dificultades estructurales para acceder a ciertos sectores de trabajadores, sobre todo entre los profesores precarios de la universidad. De estas dificultades del sindicalismo convencional surgen nuevas formas de sindicalismo que podríamos denominar como «sindicalismo intersticial». En este estudio se analiza la iniciativa de la EHUKo Prekarioen Koordinadora —Coordinadora de Precarios de la EHU— en el ciclo de protesta del curso 2023-2024, y su papel como estímulo de la acción sindical. Para ello, utilizaremos la Agenda Clásica de la teoría de movimientos sociales, que nos sirve para analizar la acción colectiva a partir de la distinción de cuatro elementos: la estructura de las oportunidades políticas, el repertorio de protesta, los recursos organizativos, las alianzas y los marcos. Por último, veremos los efectos que dicha protesta ha provocado en la universidad.

Palabras clave: acción colectiva, Universidad del País Vasco (EHU), precariedad, sindicalismo intersticial, profesorado universitario e investigadores.

ABSTRACT

During 2023-2024, a cycle of protest that had not been seen since 2006 conditioned the university's day-to-day work of the University of the Basque Country (EHU). As usual in labour disputes, the participation of the trade unions was notable. However, the unions have structural difficulties in gaining access to certain sectors of workers, especially among precarious university professors. From these difficulties of conventional trade unionism, new forms of trade unionism emerge, which we could call «interstitial unionism». This study analyses the initiative of EHUKo Prekarioen Koordinadora —the Precarious Workers' Coordinator of the EHU— in the protest of the 2023-2024 academic year, and its role as a stimulus for trade union action. To do so, we will use the Classical Agenda of social movement theory, which helps us to analyse collective action by distinguishing four elements: the structure of political opportunities, the repertoire of protest, organisational resources, alliances and frameworks. Finally, we will look at the effects that this protest has had on the university.

Keywords: collective action, University of the Basque Country (EHU), precariousness, interstitial trade unionism, university professors and researchers.

LABURPENEA

2023-2024 ikasturtea liskartua izan zen Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) irakasle eta ikertzaileentzat. Izan ere, 2006tik ikusten ez zen protestaldiak baldintzatu zuen unibertsitateko egunerokotasuna. Lan gatazketan obikoa izaten denez, sindikatuek parte hartze nabarmena izan zuten. Hala ere, sindikatuek zailtasun estrukturalak bizi dituzte zenbait sektoreetara helzeko, batik bat unibertsitateko irakasle prekarioetara. Sindikatu konbentzionalaren hutsune horietatik sortzen dira sindikalismo egiteko modu berriak, betiko sindikatuez harago doana, «sindikalismo interstizial» moduan izendatu dezakeguna. Ikerketa honetan, 2023-2024ko ikasturteko protestaldian EHUKo Prekarioen Koordinadorak izandako ekimena izan dugu aztergai, ekintza sindikalaren akuilu moduan jardun zuena. Horretarako, gizarie mugimenduen teoriaren Agenda Klasikoa erabiliko dugu azterketarako, ekintza kolektiboa ulertzeko lau elementu bereiziz: aukera politikoaren egitura, protestarako errepertorioa, antolaketa bitartekoak, aliantzak eta markoak. Azkenik, protestaldi honek unibertsitatean utzitako ondorioak ikusiko ditugu.

Hitz gakoak: ekintza kolektiboa, Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU), prekaritatea, sindikalismo interstiziala, unibertsitate irakasle eta ikertzaileak.

* **Correspondencia a:** Eki Etxebarria – Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, España – eki.etxebarría@ehu.eus – <https://orcid.org/0000-0001-5866-4254>

Cómo citar: Etxebarria, Eki (2025). «Ba al dago ekintza sindikalik sindikatuez harago? EHUKo Prekarioen Koordinadoraren esperientzia (2023-2024)»; *Lan Harremanak*, 53, 105-135. (<https://doi.org/10.1387/lan-harremanak.27543>).

Recibido: 14 mayo, 2025; aceptado: 16 junio, 2025.

ISSN 1575-7048 — eISSN 2444-5819 / © UPV/EHU Press



Esta obra está bajo una licencia
Creative Commons Atribución 4.0 Internacional

1. Sarrera

2023ko ekainaren 20an Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko irakasle ordezkoko batzuek unibertsitate mailako asanblada deitu zuten, fakultateko sarreran. Hogeit bat lagun bildu ziren, sindikatu ezberdinetako ordezkariak barne. Arrazoia, martxoaren bukaeraren indarrean jarritako Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoak (USLO) sortutako «ordezko irakaslearen» figuraren bitartez, ordezkapen berriak sinatuko zituzten irakasleei, gehienez 800 eurotako soldata ezartzea. Aldaketa horren atzean, ikerkuntza lana beraien lan sarietatik baztertzea ekarri zuen araudi aldaketa zegoen. Unibertsitateak berak eskura zituen datuetan oinarrituz, momentu horretan, EHUK zuen 5.700 irakasle eta ikertzaile plantilla batetik, 700 inguru lan kontratadun bitarteko irakasleak ziren; hau da, ordezkoak. Lan baldintzei dagokienez, lege horrek planteatutako aldaketak suposatu zuen azken hamarkadetan unibertsitate esparruan emandako aldaketa sakonenetakoa, sakonena ez bazen. Ia hiru hilabete pasa ziren legea indarrean sartu zenetik, baina albistea bera ia oharkabea pasa zen unibertsitatean bertan, langileen ordezkaritza zuten sindikatuen aldetik horren inguruko inongo dinamikarik ez zelarik planteatu. Baina zergatik unibertsitate horren plantillaren % 10ari baino gehiagori, era horren erradikalean eragiten zion tamainako neurri batek, ez zuen aparteko erantzunik jaso ordura arte? Zergatik sindikatuak ez zuten inongo dinamikarik planteatu egoera horren aurrean? Zerk bultzatu zuen ordezkoko irakasle horiek lehenengo asanblada hori deitzera? Gerora, nola gauzatu zen azken hamarkadetan unibertsitate horretan eman den protesta ziklorik garrantzitsuena? Nolakoa izan zen ordezkoko irakasle horiek bildu zituen «EHUko Prekarioen Koordinadora» izeneko taldea eta ordezkaritza zuten sindikatuen arteko harremana?

Lan honetan, galdera horiek guztiak erantzuten saiatuko gara. Galdera horien oinarrian, aldiz, unibertsitateari lotutako ezaugarri partikularrak baino, ekintza sindikalean eta gatazka kolektiboetan ematen diren gako unibertsalak topa daitezke. Izan ere, unibertsitatea, beste edozein lan gatazkarako esparru bezala, joera orokor garaikide batzuegatik zeharkatuta bizi da. Arestian aipatutako esperientzia horrek, berriz, bi sindikalismo ereduaren arteko elkarlanerako irakaspen batzuk eskaini ditzakeelakoan gaude; sindikalismo *konbentzionala* eta *sindikalismo* interstiziala, hain zuzen. XXI. mendeak ekarri duen sindikalismoaren (ustezko) krisialdiaren garai honetan, ezinbestekoa den eztabaidari heltzeko balio dezakeen esperientzia dela uste dugu.

Horri heltzeko, lan honek ondoko egitura jarraituko du. Lehenik eta behin, arestian aipatutako eztabaidari hurbilpen teorikoa egingo zaio. Ondoren, aipatu den kasuaren azterketarako erabiliko den metodologia azalduko da. Jarraian, azterketa enpiriko eta kualitatiboari helduko zaio, ondorio orokor batzuekin bukatuz.

2. Atal teorikoa

2.1. Sindikatuen legitimitate galera

Lan munduan eta gizarteaz azken hamarkadotan gertatutako egiturazko aldaketek sindikatuen boterea ahuldu eta beren legitimitate soziala galarazi egin dute Europako mendebaldean. Hori begi-bistakoa da sindikatuen afiliazio tasen joerak eta mobilizazio gaitasuna begiratzen baditugu. Gertaera hau honako datuetan antzeman dezakegu: afiliazio tasetan, mobilizazio gaitasunean (batez ere greba jarduerari dagokionez), sindikatuetikiko konfiantza mailan...

Lehenik, afiliazio tasak 2000ko hamarkadatik hona jaitsi egin dira Europako herrialde gehienetan. 2000 eta 2016 urteen artean, Europako 32 herrialdeen batez besteko afiliazio tasa %28tik %21era jaitsi da (Vandaele, 2019). Esaterako, Espainiako kasuan, afiliazio tasa %20,40ekoa zen 1993an, %12,50ekoa 2019an; Frantziako Estatukoa, %10koa 1993an, %8,8koa 2018an; Alemaniako, %31,8koa 1993an, %16,3koa 2019 (OECD eta AIAS, 2021). Bigarrenik, greba jarduera da mobilizazio gaitasunaren berri izateko bide bat. Herrialde baten greba jarduera neurtzeko erabili ohi den adierazlea zera da: lan egin gabeko egunak 1.000 langileko. Bada, 14en Europar Batasunean, kopuru hori 145ekoa zen 1980-1982 urteetan; 10ekoa 2004-2006 urteetan (Kelly, 2015). Hirugarrenik, sindikatuetikiko konfiantza maila neurtzen duten inkestek nahiko txarto kokatzen dituzte sindikatuak EAEn eta Espainiako Estatuan, gobernuak eta enpresak baino okerrago adibidez. Dena dela, kontuan hartu behar dugu instituzioetikiko konfiantzari buruz galdetzen duten (Eusko Jaurlaritza, 2025; Rodríguez eta González, 2022).

Euskal Herriko egoera sindikala nahiko ezberdina da afiliazioari eta mobilizazio gaitasunari dagokionez, sindikatu abertzaleek egindako zenbait hautu estrategikoko direla eta (Étxebarria eta Larrinaga, 2024; Las Heras eta Rodríguez, 2020). Hala ere, zailtasun estrukturalak antzera eragiten diete sindikatu hauei. Zailtasun horien artean honakoak aipa ditzakegu: globalizazioak eta digitalizazioak ahalbidetutako deslokalizazioa eta azpikontratazioa (Martin, 2021), lan baldintzen prekarizazio desregulazio neoliberalak (Prieto, 2024), indibidualizazioa (Bigi *et al.*, 2015), gizarte mugimendu berrien agerpena (Grote eta Wage-mann, 2019) eta langile klasearen ikusezintasuna eta aniztasuna (Sola, 2018). Ondorioz, konplexuagoa da identitate kolektiboa klasearen edota lanaren inguruan artikulatzea. Halaber, botere sindikalaren ahultasunak, eraginkortasun faltaren pertzepzioa dakar langileen artean. Hori dela eta, gero eta ohikoagoa da langileek estrategia indibidualetara jotzea lan baldintza hobetzeko, eta gainontzeko langileak aurkari moduan ikusiak, izatea kide moduan baino (Bigi *et al.*, 2015). Logika hau are handiagoa da unibertsitatean, non inposatzen den karrera lehia oinarrituta dagoen.

Ondorioa nabarmena da: botere sindikalaren ahultzea sakondu egiten da; eta biziberritze estrategiak jarri behar dituzte martxan. Baina Europako sindi-

katu nagusien gehiegizko instituzionalizazioaren erosotasunak biziberritze estratgien premia apaldu egin du (Mathers *et al.*, 2019). Horren ondorio dira langile sektore batzuk sindikalizatzeko zailtasunak, hala nola, prekarioak, autonomo faltsuak, sektore feminizatuetaoak, gazteak, enpresa txikietakoak... (Barranco *et al.*, 2022). Esan dugunez, Euskal Herriko ahalmena inguruko estatuetakoa baino hobe da, sindikatu abertzaleen babes instituzionala oso urria izan delako (Etxebarria eta Larrinaga, 2014). Hala ere, Europako sindikalismoaren antzeko zailtasunak hauteman daitezke zenbait esparrutan, hala nola, EHU.

Sindikalismoaren krisi egoerari unibertsitateko egoera berezia gehitu beharko genioke. Lehenik, unibertsitate gehienetan aurkitzen dugun egoera da langileen kategoria anitzek sortzen duten langileen arteko zatiketa: katedratikoak, finkoak, behin-behineko ikertzaile eta irakasle prekarioak —ordezko irakasleak eta irakasle elkartuak, besteak beste—, baita administrazioko eta azpiegituraren mantenurako langileak (batzuk azpikontratatuak). Bigarrenik, unibertsitate eredu neoliberalak eta neogerentzialak sustatu egin du, bikaintasunaren izenean, ikertzaile eta irakasle gazteen arteko lehia (González, Conesa eta Vayreda i Duran, 2016). Horrenbestez, atomizazioa, lehia eta estrategia indibidualak lehenesketako joera are sakonagoa da unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen artean, estrategia kolektibo edo sindikalen gainetik. Azkenik, Euskal Herrian bizi dugun aniztasun eta zatiketa sindikalak, gauza onak baditu ere, mugatu egiten du sindikatuen arteko batasuna, edo, behintzat, sindikatuen arteko komunikazioa eta, beraz, mobilizazio gaitasuna. Ondorio nagusia zera dugu: ikertzaile eta irakasle gazteen ibilbide akademikoaren prekarizazioa. Adibide esanguratsu bat: Euskal Herria greba gehien antolatzen dituen Europako lurraldea izanik (Las Heras eta Rodríguez, 2020), ez da EHU mailako grebarik burutu 2006-2023 bitartean (Marauri, 2006).

2.2. Sindikalismo estrategia berritzaileak

Egoera horren aurrean, sindikatuak berrikuntza estrategiak martxan jarri dituzte, bai European eta bai Euskal Herrian, arrakasta maila anitzekin, beren bote-rea eta legitimitatea berreskuratu ahal izateko (Elorrieta, 2012; Gumbrell-McCormick eta Hyman, 2018). Hymanek (2001) dio sindikatuak beren jatorrizko gizarte mugimendu izaera berreskuratzean datzala berrikuntza estratgien gakoe-tako bat, elkarriketa soziala eta dimentsio instituzionala alboratuz. Kontrabotere ereduan oinarritzen den sindikalismoak bide hori jorratzen du (Elorrieta, 2017).

Hala ere, kasu askotan, konfederazio sindikalek ezin izan dute ekidin sek-tore prekarioagoak antolatzeko zailtasuna (Pilati eta Perra, 2022), bereziki behin-behineko langileen kasuan (Mattoni, 2019). Ondorioz, sindikalismoa egiteko modu berriak sortu dira, sindikatuen egituretatik kanpo, ekintza sindi-kaletik urrun geratzen ziren gaitan, edota langileengan eragin eta beraiek anto-latzeko. Horien adibidetzat jo ditzakegu Euskal Herrian, Estatuan eta European

zehar eratutako etxebizitza eta maizterren sindikatuak, Eragin, langileen auto-defentsa sareak, Alda mugimendua eta bestelakoak. Espainiako eta Frantziako Estatueta garrantzitsuak izan dira, besteak beste, «Riders X Derechos» eta «Las Kellys» plataformak eta «Txaleko Horiak». Sindikalismo mota honek hainbat izen jaso izan ditu: «proto-sindikatu», «sindikatu interstizial», «kuasi sindikatu» edota «sindikatu independentea» (Alcalde-González *et al.*, 2024: 156; Martín, 2021; Roca eta Martín-Díaz, 2017).

Oro har, horrelako sindikalismo eredu eraberritu hauek ikertu dituzten autoreek zenbait ezaugarri azpimarratzen dituzte: antolaketa eredu lausoa, horizontala eta parte hartzailea; elkarlaguntzarako sare lokalen eraketa bestelako sindikatu eta elkarteekin; bazkiderza eredu malguak (Barranco *et al.*, 2018); kideen arteko konfiantza-, elkarrekikotasun-, eta leialtasun-harremanetan oinarritutako elkarrekintzak; sare sozialen erabilera (Martín, 2021); lantokitik kanpo gauzatutako ekintza erreperitorioa; edota negoziazio bide informalaren erabilpena (Alcalde-González *et al.*, 2024). Bistan da, gizarte mugimenduekin bat egiten duten ezaugarriak direla horiek.

Autore guztiek nabarmentzen dute sindikalismo *konbentzionalak* utzitako hutsuneak edo zirrikituak betetzeko asmoa sindikalismo eredu berri aldetik. Horregatik uste dugu «interstizial» terminoa dela egokiena. Sindikalismo «interstiziala» sindikalismo konbentzionalaren hutsune edo gabeziak betetzen dituen sindikalismo eredu izango litzateke (Roca eta Martín-Díaz, 2017), baina betiko sindikatuen helburu nagusia partekatuz: langile klasearen bizi baldintzak hobetzea, beronen interpretazio zabala eginez. Zentzu horretan, sindikalismo eredu honek konbentzionalaren izaera instituzionala eta burokratikoa baztertu eta gizarte mugimendu izaera hartu egiten du. Hala, malgutasun handiagoz funtzionatzen dute, eta gai dira sindikatuetatik urrun kokatzen diren sektore eta gaitara heltzeko. Era berean, eredu honetako mugimenduek sindikatuekin duten harremana konplexua izan ohi da. Beren sindikatuekiko jarrera kritikoa, elkarlanean edo lehiazkoa izan daiteke (Alcalde-González, 2024), gizarte mugimenduen eta sindikatuen artean gertatzen den bezala. Hurrengo atalean sakonduko dugu honetan.

Ikerketa lan honetan «EHUKo Prekarioen Koordinadoraren» ekimena aztertuta nahi dugu. Ekimen honen abiapuntua 2023ko ekainaren 20ean Leioako Campusean burututako asanblada izan zen, USLOk Irakasle Ordezkoen lanbaldintzetan eragindako prekarizazio arriskuari aurre egiteko. Esperientzia honek sindikalismo interstizialaren ezaugarri nagusiak betetzen dituen ustetik abiatuta, gure hipotesi nagusia ondorengo izango da: sindikatu *konbentzional* eta *interstizialen* arteko esperientziak, eredu kontrajarri edota ordezkarriak baino, elkarren osagarri eta ekintza sindikala era bateratuan eraginkorrago bihurtu dezaketen ereduak direla. Hipotesi orokor horretatik abiatuta, hauek izango lirateke hipotesi zehatzak: lehenik, ereduaren uztarketa honek, unibertsitatean as-

palditik gertatzen ari zen prekarizazio prozesuak ezaugarritutako egiturazko egoera baldintzatzea lortu duela; bigarrenik, bere eskutik borroka sindikalerako protesta tresna berriak mahaigaineratu direla; hirugarrenik, antolaketa egitura *klasiko* eta *berrien* arteko elkarlanerako esparruak irekitzea lortu dela; eta laugarrenik, unibertsitateko langileen lan baldintzak interpretatzeko marko diskurtiboak eraldatzen hasi direla.

2.3. Sindikatuak, gizarte mugimenduak eta sindikalismo interstiziala

Ildo horretan, sindikatu interstizialak gizarte mugimenduen esparruan kokatzen ditugu. Sindikatu konbentzionalak ez genituzke gizarte mugimenduetatik at kokatuko, baina ezin ditugu bete-betean mugimendu kontsideratu ere ez. Izan ere, aintzat hartu behar ditugu, besteak beste, negoziazio kolektiboan eta organo instituzionaletan dituzten eskumen legalak. Horregatik, sindikatuen izaera «hibrido» azpimarratu izan dute (Tapia eta Alberti, 2019).

Ildo horretan, sindikatuak barne tentsio bat bizi dute mugimendu- eta instituzio-izaeren artean, eredu estrategiko ezberdinak ematen dituen (Fairbrother, 2008; Hyman, 2001). Gizarte mugimendu teoriak hainbat ezberdintasuna azpimarratu izan ditu gizarte mugimendu eta sindikalismoaren artean (Diani, 2019). Lehenik, gizarte mugimenduak aktore eta gatazka emergentetara lotu izan dira, klase gatazkatik kanpo (Melucci, 1996). Gure kasuan, ezberdintasun horrek ez du tokirik, aztertu nahi dugun ekimena lan munduan eratzen delako. Bigarren joera batek antolakunde forma jarri izan du arreta, zeinetan sindikatuak antolaketa burokratikoekin lotu izan diren, eta gizarte mugimenduak egitura organizatibo informal, dezentralizatu eta partehartzaile batekin (Rucht, 1995). Ildo horretatik jarraituz, autore batzuk nternetek antolaketarako eskaintzen dituen aukera berriak kontuan hartuz, eta antolaketa eredu birtualen gailentzea azpimarratu dute (Castells, 2012; Bennett eta Segerberg, 2013). Hirugarrenik, Tillyk (1978) prozesu politikoetako esku hartzean jarri du arreta. Ontzat hartuz sindikatuak badituztela bide formalak politika publikoetan eragiteko —horien eraginkortasuna beste kontu bat da—, gizarte mugimenduak bide horietatik kanpo kokatuko lirатеke. Marko hau sinplistegia izan daitekeen arren, balio digu gure ikergaia sindikalismo konbentzionaletik bereizteko, eta elementu berritzaileak kontuan hartzeko

Esango genuke sindikalismo interstizialak aipatu gizarte mugimenduen ezaugarri gehienak barne hartzen dituela, betiere klase-gatazkan kokatuta. Ildo horretan, adierazgarria izango da sindikatu konbentzionalen eta sindikalismo interstizialaren artean sortutako harreman motak. Bada, sindikatu eta gizarte mugimenduen arteko harremanak izan daitezke gatazkatsua, elkarlanezkoa edo indiferentziazkoa (Heery *et al.*, 2012), baita lehiazkoa ere. Era berean, elkarlanak forma ezberdinak har ditzake. Ildo horretan, Tattersall-ek (2005) lau koalizio mota ezberdintzen ditu, elkarlanaren sakontasun mailaren arabera:

1. *Ad-hoc koalizioa*: Behin-behineko aliantza izango litzateke, elkarlanerako deia luzatu duen eragilearen menpe dagoena.
2. *Babes koalizioa*: Aurrekoa baino egituratuagoa da, baina aldi baterakoa, eta eragile batek proposatutakoa. Hortaz, eragile horrek izaten du ekimen nagusia.
3. *Elkar babeserako koalizioa*: eragileek interes eta gai amankomunak jorratzen dituzte. Hala, eragile guztiek ateratzen dituzte onurak elkarlanetik, beraien interes korporatiboak hor daudelarik, eta mobilizazio gaitasun altuagoa izan ohi dute.
4. *Koalizio sakona*: Interes orokorraren aldeko konpromisoak sakontasun handiagoa bereganatzen du. Izan ere, eragileek koalizioaren interes orokorraren alde bideratzen dituzte beren baliabideak. Horrela, mobilizazio ahalmena nabarmen areagotzen da.

Laburbilduz, sindikalismoak utzitako hutsuneek sindikalismo mota berri baten sorrera ekarri dute, «interstizial» moduan definitu duguna. Mota hone-tako sindikatuak, klase-gatazkaren eremuan sortuak izanagatik ere, gizarte mugimenduen ezaugarriak jasotzen dituzte bete-betean. Zentzu horretan, gizarte mugimenduen Agenda Klasikoa baliatuko dugu gure kasua aztertzeko, alegia, EHUko Prekarioen Koordinadorarena.

3. Ikerketarako metodo bat: ekintza kolektiboaren azterketarako Agenda Klasikoa

EHUko Prekarioen Koordinadoraren azterketarako metodologia kualitatiboa baliatuko dugu. Datuen ustiaketarako, prentsaren eta sare sozialaren analisisan oinarrituko gara gehienbat. Izan ere, aztertutako eragileak X sare sozialeko kontua (@EHUPrekarioKoor) baliatu izan du bere irakurketa, deialdi eta adierazpen guztiak zabaltzeko. Era berean, gaiari buruzko albiste gehienak bere kontutik partekatzen zituen, baita Errektoretzaren ekimenei buruzkoak. Hori dela eta, kontu honetan daude gertakari eta adierazpen ia guztiak kronologikoki antolatuta.

Halaber, esan beharra dago artikulua honen egileok protestaldi honetako parte hartzaile izan garela, eta lehen pertsona bizi izan dugula prozesua. Zentzu horretan, ekintza kolektibotik ezagutza ateratzeko ahalegin moduan ulertu behar dugu ikerketa hau, ikerketa militantearen ideiak aplikatuz (Posse *et al.*, 2004). Horren, prozesua sakonetik ezagutzen dugu, eta, era berean, ezinezkoa dugu haren irakurketa inpartziala egitea. Hala ere, zintzotasun zientifikoa mantentzen ahalegindu gara azterketarako.

Datuen ustiaketarako teknikak aipatuta, esan dugu gizarte mugimenduen Agenda Klasikoa baliatuko dugula tresna metodologiko gisa. Baina zer da? Zer-

tan oinarritzen da? Bada, xx. mendearen bigarren erdialdea, protestaren eta ekintza kolektiboaren zabalkundearen ikuspegitik, oparoa izan zen. Epealdi hau gizarte mugimendu berrien loraldia bezala ezaguna egin da gerora. Horrek, ezinbestean, jarduera kolektiboaren azterketarako metodoen ugaltzea ekarri zuen. Ikuspegi horiek guztiak eskola edo paradigma bakar batean biltzea nekeza bada ere, orokorrean, aurretik era ezberdinetako diziplina sozialek protesta irudikatzeke planteatuko ikusmoldeen aurreko erreakzio izan zirela esan daiteke: bate-tik, gertaera sozio-politikoen gaineko ikuspegi «elitista» inpugnatzeko ahalegina, aldaketa prozesuak «behetik» ere eraikitzen direla aldarrikatzen zutena; bestetik, masen izaera inplutsibo eta irrazionala nabarmentzen zutenen aurkako jarrera ere izan zen, gertaera hauen atzean ezkututzen diren dinamikak azaleratu nahi zituenak; eta hirugarrenik, ekintza arrazionalaren defendatzaileek planteatutako protestaren ikuspegi *ekonomikoa* (parte hartzea irabazi/galera kalkulu baten ondorio bezala ulertuz) zalantzatan jartzen zutenak (McAdam, Tarrow eta Tilly, 2005).

Mende aldaketarekin batera, autoreek (Della Porta eta Diani, 2011; Tarrow, 1997; McAdam, Tarrow eta Tilly, 2005) lau multzo nagusietan laburbildu zituzten, arestian aipatutako mugimendu sozialen loralditik aurrera ekintza kolektiboaren azterketarako baliatutako ikuspegiak; gerora, lauak bilduta, ekintza kolektiboaren azterketarako *Agenda Klasiko* bezala bataiatu zena: aukera politikoen egitura, protestarako errepertorioa, antolaketa bitartekoak eta marko diskurtsiboak.

3.1. Aukera Politikoen Egitura

Aukera Politikoen Egiturak (APE) protestaren testuinguruan jarriko du arreta; protesta bera erraztu edo zailtzen duten elementuetan, hain zuzen. Della Porta eta Dianik (2011) bi aldagai multzo bereziko dituzte hauen barruan: *egonkorrak* eta *aldakorrak*. Lehenek denboran zehar irauten duten eta aldaraztea zaila diren elementuei egiten diete erreferentzia; bigarrenak, moldagarriagoak direnei. Lehenen artean, bi azpi-multzo topa ditzakegu: *instituzioen egiturari* dagokiona eta *kultura politikoari* dagokiona.

Instituzioen egiturak erakundeen irekitasunak edo itxikeriak protesta zer punturaino erraztu edo zailtzen duen argitu beharko luke. Alde horretatik, ez dago ikuspegi bateraturik, instituzioen molde batek edo besteak, ekintza kolektiboa zer punturaino baldintzatzen duen zehazterako orduan. Printzipioz, sistemak eskaera sozialen aurrean jarrera harkorra izateak protesta ahalbidetu dezake; ikuspegi arrazional batetik, protestagileak, «kostu/irabazi» kalkulua eginda, bertan parte hartzea bultzatu ditzakeelako. Baina, badira hainbat adibide kontrako testuinguruak protesta suspertzerantz eramanez dezan adierazten dutenak. Edozein kasutan, hiru elementu azpimarratu izan ohi dira erakundeen egitura aztertzeke orduan: instituzioen *lurralde (des)zentralizazioa*, botearen *banaketa*

funtzionala eta beraien *gaitasuna* beste eragileen aurrean (Kitschelt 1986; Rucht 1994; Kriesi 1995). Ikuspegi soil batetik, zera planteatzen liteke: sistemak zenbat eta botere deszentralizatuagoa, banatuagoa eta ekintzaileen aurrean gaitasun txikiagoa izan, protesta garatzeko orduan eta aukera handiagoa. Baina, aipatu den bezala, ekintza kolektiboak gutxitan garatu ohi izan du bide hori era horren linealean.

Kultura politikoak, berriz, herritarrek eta instituzioek harremanetan jartzeko duten moduari erreferentzia egiten dio (Almond eta Verba, 1970). Sistema bakoitzak bere dominaziorako estrategiak izango ditu, beti ere, bere azken helburua sistema bera iraunaraztea izango dela aintzat hartuta. Batzuk, jendartearen aldarrikapenen aurrean, estrategia barneratzaileagoak izango dituzte. Beste batzuk, berriz, baztertzailagoak. Lan esparruan antzeko egoerekin topatuko gara; kasu batzuetan, enpresen aldetik jarrera abegikorra izanik, eta, beste hainbatetan, uzkurragoa. Era berean, herritarrek instituzioekin harremanetan jartzeko moduei dagokienez ere, modu ezberdinak topatuko ditugu; kasu batzuetan, sistemak berak finkatutako bideetatik garatuko direnak, eta besteetan, izaera gatazkatsuagoak izango dutenak.

APERen aldagai *aldakorren* artean, bi multzo nagusi berezi izan dira: *alian-tza egitura* eta *aurkaritza egitura*. Labur esanda, lehenengoak protesta erraztuko duten lagunak izango dira; bigarrenak, bera oztopatuko duten arerio edo lehia-kideak. Lehenengoek era ezberdinetako bitartekoak eskainiko dizkiete protestagileei (ekonomikoak, materialak, giza baliabideak, ...), horrek aukerak berriak zabalduko dituelarik. Talde honetako ohiko bidai-lagunak ezkerreko alderdiak, sindikatuak edota bestelako mugimendu sozialak izan ohi dira. Bigarrenak ekintza kolektiboa eragozten saiatuko dira, horretarako ohiko bitartekoak hertsadura eta errepresio mekanismoei lotuta egon ohi direlarik. Bertako ohiko kideak polizia, judikatura edo espetxe sistema bezalakoak izaten dira; nahiz eta sistemak hertsadurarako bestelako mekanismo sotilagoak ere erabili ditzaketen protestagileak desanimatzeko (isunak, karrera profesionala baldintzatzea...).

3.2. Protestarako errepertorioa

Agenda Klasikoaren bigarren zutabea, ekintza kolektiborako baliatutako protestarako errepertorioarekin lotuta egongo da. Protesta motak hiru irizpideren arabera sailkatu daitezke (Della Porta eta Diani, 2011): *erradikaltasuna*-ren arabera, *izaeraren* arabera eta *barne logikaren* arabera. Lehenengoak, jarduera konbentzionaletik ez-ohiko jarduerara doan ardatz batean koka litezke (Dalton, 1988): araututako bideetatik egiten den idatzizko eskaeratik, mota ezberdinetako biolentziak barnebildu ditzaketen jardueretara. *Izaerari* dagokionez, protestan jarduten dutenek bi helburu moten arabera aritu daitezke: politikoak edo kulturalak. Helburu politikoek kanpo errealitatea eraldatu nahi izango dute; helburu kulturalak taldearen barne balioak sustatu. Bi hauek ez dira elkar baz-

tergarriak izango, hainbatetan batzuk non buka eta besteak non hasten diren mugarritzea ezinezkoa delarik. Greba, protestarako jardun klasiko bezala, lan esparruari lotutako errealitatea aldaraztea izango du helburu, baina, aldi berean, balio sistema oso bat artikulatzen da parte hartzen dutenen artean (elkartasuna, duintasuna, konpromisoa...); baita, bertan parte hartzen ez dutenekiko ere (eskirolajea, desleialtasuna...). Azkenik, protestaren *barne logikari* erreparatzen badiogu, funtzionatzeko hiru erarekin topa gintezke:

Kopuruaren logika: honen arabera, ekintzaileek mugimenduaren tamaina eta zabaltasuna jarriko dute bere jardunaren arreta gune nagusi bezala, beraien atzean gehiago bat dagoela irudikatzeko asmoz.

Kaltearen logika: protestagileek aurrean duten aurkariari ahalik eta kostu handiena eragiten saiatuko dira, horretarako sortu daitezkeen «albo kalteak» handiak izanik ere. Proposatzen den etorkizuna, dagoen errealitatea baino hobea dela erakutsi nahi badute, egoera jasanezina bilakatu beharko dute.

Konbentzimenduaren logika: honakoa mugimenduaren *ethos*-arekin lotuta legoke; hau da, mugimenduak erakusten duen balio sistema, ikuspegi etikoa edota dispozioarekin, hauek bere erreferentzialtasuna eta lidergoa indartuko luketelarik.

Esan gabe doa, hiru hauek ez direla baztergarriak izango, hainbatetan mugimenduaren arrakasta hiruen arteko uztarketa egoki batean egon ohi baita. Izan ere, protesta jardueraren bitartez, ekintzaileek bi elementuren arteko oreka bi-latu beharko dute: *eraginkortasuna* (beraien posizioa indartuz eta parean dutenena ahulduz) eta *legitimitatea* (planteatzen diren eskaeren atzean interes partikularrak baino, orokorrak daudela agerian utziz). Protestagileek, hori era egokian egitea lortzen badute, sistema berregokitzea behartuko dute, eraldaketarako aukera berriak sortuz.

3.3. Antolaketaarako bitartekoak

Agenda Klasikoaren hirugarren zutabea *antolaketaarako bitartekoek* ezaugarrituko dute. Bitarteko hauen definizio klasikoan, bi eredu nagusitu izan dira: *antolakundea* eta *sarea*. Era ezberdinetako definizioekin topatu bagaitzke ere, antolakundeak helburu zehatz batzuei begirako egituraketa arrazionalak bezala definitu daitezke. Hauek era oso ezberdinetako funtzioak bete ditzakete: protestan parte hartzera bultzatzen dute, era askotariko bitartekoak biltzen dituzte, helburu komunak definitu edota helburu horiek beraien lehiakideekin negoziatzen dituzte (Scott, 1981). Baina ukigaitzagoak diren eginkizunak ere badi-tuzte, identitate politiko eta sozialen eramaileak diren heinean. Eginkizun hau sareekin partekatuko dute. Sareetan harreman pertsonalek berebiziko garrantzia izango dute (Della Porta eta Diani, 2011), batez ere beraien hasierako uneetan. Bertan ere, tipologia oso ezberdinekin topatu gaitezke: sare batzuk beraien ki-

deen arteko lotura lausoa mantenduko dute; beste batzuk, aldiz, lotura sendo eta trinkoa bermatuko dute, hainbat kasutan, eksklusiboak izateraino. Antolakundeek kasuan bezala, sareek maila ezberdinetako eginkizunak garatuko dituzte: batzuk kanpora begirakoak, talde sozial ezberdinen artean harremanetan jartzeko eredu bat finkatzen duten heinean; beste batzuk barrura begirakoak, ki-deen artean errealtate sozio-politikoaren interpretatzeko ikuspegi komun bat partekatzen den heinean.

Ikertzaile sozialen artean, antolaketaarako bitartekoak aztertze orduan, hainbatetan galdera bat nagusitu da: zer antolaketa eredu da egokiagoa ekintza kolektiboa garatzeko, antolakundea ala sarea? Honez gero, aski zabalduta dago galdera horrek norabide bakarreko erantzunik ez duenaren ideia. Parte hartze borondateak eta berotasunak gora egiten duten une horietan, sareak eskaini ohi dituen oinarritzko bitartekoak nahikoak izaten dira ekintza kolektiboa garatzeko. Apalaldietan, aldiz, antolakundeek beharrezkoak diren euskarriak eskaintzen dituzte protestaren garra pizturik mantentzeko. Sarea non bukatzen den eta antolakundea non hasten den definitzea zaila den kasuetan, antolaketa eredu *híbrido*ez hitz egin ohi da, gorago aipatutako sindikalismo interstizialak kokapen egokia izan dezakeelarik horrelako definizioetan.

3.4. Agenda settinga eta markoak

Edozein eragilek agenda mediatikoa baldintzatzeko eta iritzi publikoan eragiteko garrantzi handiko bi teoria kontuan hartu behar ditu, gutxienez. Batetik, eta jendarte mediatiko batean bizi garela kontuan hartuz, *agenda setting*ak duen garrantzia (McCombs eta Shaw, 1972) barneratu eta komunikabideek iritzi publikoaren eztabaida gaiak baldintzatzeko duten gaitasuna kontuan hartu behar dute. Aipatu autoreen arabera, komunikabideek zer eta nola pentsatu baino, zertan pentsatu behar dugun iradokitzen digute eta, beraz, hausnarketa eta eztabaida sozial eta politikorako agenda edo gaitetia baldintzatzen dute. Jakina, komunikabideen kontrola eta boterea ez da erabatekoa, baina bai handia (*ibid.*). Kuypers-entzat ordea (2009), haratago doa komunikabideen funtzioa eta, zertaz eztabaidatu behar den proposatzeaz gain, nola edo nondik abiatuta hausnartu behar dugun baldintzatuko dute. Hau da, batetik, medioek gaien aukeraketa bat egiten dute, batzuk lehenetsiz eta beste batzuk alboratuz. Baina, hein berean, medioek aukeratutako gaiak testuinguruan jarri eta zentzu bat ematen diote. Hala, zer galderari erantzuteaz gain, nola galderari ere erantzungo diote. Gertakarien inguruan egiten den aurkezpenak garrantzi handia du beraz, eta bigarren urrats honi *agenda extension* deituko dio (*ibid.*).

Jakina, bigarren urrats hau ulertzeko markogintzaren teoriara jo behar dugu. Markoak errealtatea interpretatzeko baliagarriak zaizkigun egitura mental edo kognitiboak dira (Lakoff, 2004). Markoak errealtatearen edo gertakari baten alderdi batzuk aukeratu eta beste batzuk alboratzen ditu, atal batzuei garrantzia

handiagoa ematen die eta beste batzuei gutxiago. Edonola, markoaren garrantzia deskribatzen dizkigun gertakarien, atalen edota gauzen arteko ordena, logika edota kausalitatean datza (Entman, 1993; Goffman, 2006). Markoek, beraz, errealitatearen parte bat hautatzeaz gain, errealitate horren gaineko aurkezpen antolatu eta baldintzatua egiten dute. Aurrekoa gutxi ez eta aztertzen ari garen iker-gairako garrantzitsua den hirugarren funtzioa betetzen dute markoek: errealitatea interpretatzeko tresna izateaz gain, errealitate horren aurreko jarrera ere baldintzatzen dute (Entman, 1993; Lakoff, 2004; Goffman, 2006). Markoek gertakarien aurreko begirada bat eskaintzen digute, baina aldi berean gertakari horri aurre egiteko aukera bat (eta ez besteak) eskaintzen digute. Era berean, deskribatzen duten egoeraren aurrean erantzuteko edo ez erantzuteko motibatu edo desmotibatu gaitzakete. Hots, begiradaz gain, jarduera ere baldintzatu dezakete.

Edonola, marko mota ezberdinak daude eta horien arabera betetzen duten lehentasunezko funtzioa ezberdina izan daiteke. Benford-ek eta Snow-ek (2000), adibidez, mugimendu sozialen jarduera ikertu ostean, hiru marko mota proposatzen zituzten: diagnostikozkoa, pronostikozkoa eta motibazionala. Lehenak, bere izenak dioen moduan, egoeraren azterketa zehatz bat proposatzen du, eta ordenaz gain, egoera horren kausa edo arrazoia jasoko du. Bigarrenak, pronostiko markoak, aurrera begirako aurreikuspena egin eta horrekin aipatu berri dugun balizko erantzunaren gaineko preskripzioa ere ezarri dezake. Azkenik, marko motibazionalak egoera horren aurrean izan beharreko aldartearen proposatuko du, erantzuteko animatuz edo desanimatuz. Gure ikerketarako Entmanek (1993) aipatzen duen beste marko bat ere erabiliko dugu, alegia, arrazoizkoa eta honen arabera gertakariaren kausa edo ardura determinatuko da.

Aipatu agenda setting-aren eta markogintzaren teoriak, kontzeptuak eta kategorizazioak baliagarriak izango zaizkigu, ikergai dugun EHUKo prekarioen borroka aztertzeke, garatutako diskurtsoek agenda baldintzatzeari begira izan zuten emaitzaz hausnartzeko eta, hein berean, eragile ezberdinen diskurtsoan erabilitako markoak aztertzeke.

Laburbilduz, ekintza kolektiboaren azterketarako Agenda Klasikoa ez da bateratutako paradigma bat edo ikerketako eskola konbentzionala. Jendarte mobilizazioa aztertzeke ikuspegiaren bilduma bezala ezaugarritzea egokiagoa litzateke. Ziur aski, bere bertute nagusietako bat litzateke era oso ezberdinetako fenomeno sozialak angelu ezberdinetatik ikertzeke ematen duen aukera; osagarriak liratekeen ikusmoldeak, hain zuzen. 60ko hamarkadatik aurrera ugaltzen hasi ziren mugimendu sozial berrien eskutik garatutako ekintza kolektiboaren azterketarako erabili izan bada ere, era guztietako aktoreen jardueraren azterketarako tresna bihurtzen joan da. Euskal Herriko kasuari dagokionez, azpimarragarria litzateke metodo honen erabilera lan esparrutik abiatu diren kasuen azterketarako (Elorrieta 2012; Sierra 2018); hain zuzen ere, esparru laboral, sozial eta politikoaren arteko mugak hain lausoak agertzen diren kasuetan.

Gure kasuan, Agenda Klasiko horretaz baliatu gara, batetik, lehen pertsonan bizi izan genituen gertakari horiek modu enpiriko batean ikertzeko eta, bestetik, metodologia kualitatiboa erabiliz, gaiaren inguruan eraikitako diskurtsoa eta markoak aztertzeke.

4. Kasuaren analisisia

4.1. Aukera Politikoen Egitura: Instituzioen itxikeriatik, eliteen deslerrotzera

APEk ekintza kolektiboaren garapena erraztu edo zailtzen duten testuinguruaren elementuei erreferentzia egiten die. Aurrez aipatu bezala, elementu hauek aldagai *egonkor* edo *aldakorrak* biltzen dituzte. Lehenengoei dagokienez, maila oso ezberdinetako instituzioen inplikazioari erreparatu beharko genioke: USLOa onartu zuten Espainiako Gorteetatik hasita, bera aplikatu zuen EHUko Errektoretzaraino. Bertan, erakundeen irekitasuna edo itxikeria baloratzeko, Della Portak eta Dianik (2011) planteatutako gako nagusiak topa ditzakegu. Batetik, *botearen (des)zentralizazio* maila. Gogora dezagun, gatazkaren abiapuntua USLO legeak finkatutako irakasle kategoria berrietan eta, zehazki, ordezeko irakaslearen figura arautzen duen 80.1.b) artikuluan legokeela¹. EHUk eginiko irakurketaren arabera, artikulua honek ikerkuntza eta kudeaketa lana ordaintzea eragotziko luke. Alde horretatik, honakoa Espainiako Kongresuak ezarritako lege organiko batek finkatutako joko zelaia litzateke, lege-hierarkia mailarik gorena duena, eta Kongresuak berak, edo bestelako erakunderen batek, garatu dezakeen araudi arruntaren gainetik legokeena². Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), oinarritzko bi araudik arautu dute bertako unibertsitate sistema: batetik, 2004ko Euskal Unibertsitate Sistema Legea, eta bestetik, irakasle eta ikertzaileen soldata eta bestelako lan baldintzak finkatzen dituen, 41/2008 Dekretua. USLOak jasotakoak, bi arau horietan bildutakoa indargabetuko luke (baita EHUk sindikatuekin adostutako lan hitzarmena ere), bertako instituzioen gaitasun legegile mugatuan agerian utziz, Estatuaren gaitasun zentralizatzailearen aurrean.

Erakundeen *boterearen banaketari* dagokionean, unibertsitatearen barne funtzionamenduari ere erreparatu beharko genioke. Izan ere, lege horren interpretazioa Errektoretza taldearen esku bakarretan gelditu baitzen, tarteko institu-

¹ Artikuluaren puntu zehatz horrek horrela dio: «El contrato [del profesor/a sustituto/a] comprenderá la actividad docente lectiva y no lectiva prevista en el artículo 75, y no podrá superar la asignada a la profesora o profesor sustituido, ni podrá extenderse a actividades universitarias de otra naturaleza en la universidad de contratación, como las de investigación o el desempeño de funciones estructurales de gestión y coordinación, salvo que tengan directa relación con la actividad docente» [kursibak gureak dira]. Atal honen interpretazioaren inguruan eman zen gerora garatu zen gatazka nagusia.

² Marko diskurtsiboen atalean aztertuko den bezala, hasiera batean Errektoretzaren aldetik egin-dako irakurketa honek baldintzatu zuen nagusiki gatazkaren garapena, bestelako irakurketa bat egi-tea posible zela aldarrikatzen zuten sektoreekin lehian egonik.

zio (fakultate, departamentu, ...) edo markoetan (Klaustroa, Kontseilu Soziala, ...) egin zitezkeen bestelako irakurketak ezer ezean utziz. Honek, Eva Ferreira buru zuen Errektoretza taldea, *posizio ahalguztidunean* kokatu zuen beste sektoreen aurrean.

Instituzio ezberdinetako itxikeria horri, urteetan zehar unibertsitatean egonkortutako *kultura politikoa* gehitu beharko genioke; komunitateko kideak eta autoritateak harremanetan jartzen dituzten ohitura multzoari dagokiona, hain zuzen. Jarrera hauek bi norabidekoak izaten dira. Batetik, autoritate guneetatik herritarrekiko; edo, nahiago bada, Errektoretza taldetik unibertsitate komunitatearekiko. Zentzu horretan, egitura unibertsitario ezberdinetan horren ohikoak izaten diren bertikalismoa, elitismoa eta jarrera autoritarioak erraz erreproduzitu dira unibertsitate honetan ere; bereziki, gatazka honek iraun duen bitartean. Jarrera hauek ilustratu dezaketen hainbat adibide aurkitu ditzakegu epealdi horretan zehar sindikatuek edo Koordinadorak berak egindako adierazpenetan. Bestetik, herritarretatik autoritate guneetara doan norabidea legoke; edota, gure esparruan, unibertsitateko komunitatetik Errektoretza taldera. Era orokorrean, unibertsitateko estamentu zehatzetan sortzen diren botere guneek bertako kideen karrera profesionala baldintzatzeko duten gaitasunak, protestarako aukerak mugatu eta parte hartze arautu eta otzanaren aldeko jarrera sustatu izan dute. Egoera hau bereziki nabarmena izan da egoerarik prekarioenean dauden sektoreen artean, beraien zaugarritasun egoera tarteko.

Testuinguruaren *elementu aldagarri* dagokienez, mugimenduak bera aldarazteko bi helburu nagusi finkatu zituen, gerora azalduko dugun ekintza kolektiboaren bitartez. Batetik, *aliantza egitura* sendo bat artikulatzea. Eginkizun horretarako, bi aktore nagusiengan jarri zen arreta: batetik, antolatu gabeko irakasle eta ikertzaileak; eta, bestetik, ordezkaritza zuten sindikatuak. Lehenengoei dagokienez, beraien artean gutxieneko saretze edota irakurketa komunak partekatze ahalegina egin zen. Horren adierazgarri, kolektiboaren abiapuntu izan ziren asanblada irekiak, sinadura bilketak edo sare sozialen bidez sortutako taldeak. Alde horretatik, agerian gelditzen hasi zen lan baldintzen okertzeari eta prekarizazio prozesuari lotutako kezak, ordezeko irakasleen mugetatik harago zihoazela. Zentzu horretan, ordezekoen aldeko dinamika bestelako kexen katalizatzailea ere izan zen. Hasiera batean borroka partzial izan zena orokortuz. Aliantza egitura horren bigarren zutabe nagusia, EHUUn ordezkaritza zuten sindikatuak izan ziren. Beraiek ziren langileen ordezkagarritasuna zuten aktore nagusiak, eta, alde horretatik, Errektoretzarekin interlokuzio nagusia izan behar zutenak arazoa konpontze bidean jartzeko. Beraien arteko harremanak, aldiz, zatiketak ezaugarritzen zituen³. Banaketa hau ekintza kolektiboaren eraginkor-

³ Bloke sindikalez hitz egitea erabat zuzena ez bada ere, orokorrean, dinamika sindikal ezberdinez hitz egin daiteke. Batetik, LAB eta Steilasen artekoa; bestetik, CCOO eta UGTren artekoa; eta azkenik, ELAren, hainbatetan azken hauekin posizioa partekatzen zuena.

tasunaren mehatxu agerikoa izan zitekeela jakitun, Koordinadoratik *artekaritza* lana garatzeko saiakera berezia egin zen, egindako planteamendu ezberdinetara sindikatu ezberdinak deituz edota guztiekin alde-anitzeko hartu-emanak izaten.

Mehatxuz beteriko egoera horretan, aliantza egitura ez zen arrakalak sortzen saiatzeko bitarteko bakarra izan. Orain arte nabarmendutako instituzio nagusietako arduradunek erakutsitako jarrera hertsiaaren aurrean, *eliteen deslerrotzearen* mekanismoak paper garrantzitsua bete zuen (McAdam, Tarrow eta Tilly, 2005). Gatazka bera unibertsitatearen «lau pareten artean» giltzaperatuta uztea baino, estrategiari lotutako erabakia berari dimentsio publikoa ematea izan zen. Horretarako, medioei eskainitako arreta bereziaz gain, eragile politiko-instituzional ezberdinekin zabaldutako interlokuzioa nabarmendu daiteke. Hartu-eman horien artean, 2023ko irailaren 27an Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean Prekarioen Koordinadorak egindako agerraldia azpimarratu beharko litzateke, talde parlamentario ezberdinen babesa jasoz (EHUko Prekarioen Koordinadora, 2023).

Ez zen kolektibo honek jasotako bultzada bakarra izan. Handik gutxira, urriaren 16an, orduko Hezkuntza Sailburuak, Jokin Bildarratzek, Espainiako Gobernuari egindako eskaera etorri zen, USLOaren aplikazioa urte betez atzeratzeko (NTM / EFE, 2023). Bi egun beranduago, arestian aipatutako Hezkuntza Batzordean bertan, EAJ-PNV eta PSE-EEren ekimenez, Legebiltzarrak EHUko Errektoretzari egindako eskaera ere nabarmentzekoa litzateke. Eskaera horretan, Legebiltzarrak «UPV/EHUko sailetan kontratatzeko eta ikertzeko estrategia propioa» garatzeko eskatu zion Errektoretzari, «unibertsitate publikoak gerora sortutako aldi baterako ordezkapenei erantzuteko duen gaitasuna bermatzeko, eta ordezeko langileak kontratatzeko aukerak bermatzeko, bai irakasle lanetan, bai ikerketa lanetan»; hau da, ordaindu gabeko ikerkuntza ordaintzeko (Eusko Jaurlaritza, 2023). Kasu horretan, hauteskunde autonomikoen gertutasunak ekintza kolektiboa Koordinadoraren alde jokatu zuen.

Baina eliteen banaketa prozesuan, ziur aski deslerrotze nabarmenena, 2024ko maiatzaren 28an Estatuko Unibertsitate Idazkariak, EH Bilduko parlamentariaren galderari erantzunez, egindako adierazpenak izan ziren. Hitzez hitz esanez «EHUk [USLOaz] egindako irakurketa beste [unibertsitate] batzuk egindakoak baino zorrotzagoa da, eta, beharbada, EHUren aldetik zer bait gehiago egin zitekeen» (EHUko Prekarioen Koordinadora, 2024). Izan ere, ordurako gauza jakina zen Granadako Unibertsitatean, adibidez, bestelako kontratazio politika egiten ari zirela, ordezeko irakasleei ikerkuntza ordainduz.

4.2. Protestarako errepertorioa: ardoa zaharra, zahagi berrietan.

Hainbat arduradun politiko eta instituzionalen artean jazotzen ari ziren mugimendu eta diskurtso aldaketak ez ziren hutsetik etorri. Prekarioen Koordinadorak, sindikatuekin batera, garatzen hasia zen ekintza kolektiboaren ondorio

zuzena baizik. Aurretik aipatu bezala, ekintza kolektibo arrakastatsua bi elementuen arteko uztarketa egokiaren emaitza izan ohi da: *legitimitatea* eta *eraginkortasuna*. Balio demokratikoak nagusi diren jendarteetan, legitimitatearen ideia gehiengoan artikulazioarekin hertsiki lotuta agertzen da. Gure kasuan, legitimitate hori ordezkoen kolektibotik harago zegoen gizarte multzo baten eraikuntzatik pasatzen zen. Urte luzez, prekarietatea forma oso ezberdinetan bizi izandako kolektiboaren artikulaziotik, hain zuzen: kontratu predoktoralekin miseriazko soldatak jasotako ikertzaile gazteak, urteetan zegozkionak baino klase ordu gehiago emandako irakasleak, amaigabeko lan burokratiko edota kontu-emate lanetan murgildutako langileak (*accountability*), edota erretiro goiztiarrerako hobariak kolokan ikusi zituzten irakasle beteranoak. Baina baita irakasle-ikertzaileen multzotik harago ere. Izan ere, prekarizazio prozesu hori eragin zuzena izaten ari zen irakaskuntzaren kalitatean era ezberdinetan: lan poltsak osatzen zituztenek uko egiten ziotelako ordezkapenei, hainbat klase bete gabe geldituz; irakasle egonkorrek bete behar zituztelako hutsune horiek, klaseak egun bate-tik bestera prestatuz, eta abar. Egoera okertze orokorraren adierazle izan lehen sinadura bilketan, EHUK duen 5.500 irakasle eta ikertzaileko plantilla bate-tik 1.142k haien babesa erakutsi izana («EHUKo 1.142 irakasle eta ikertzaile», 2023)

Eraginkortasuna, aldiz, norberaren posizioa indartu eta aurkariarena ahultzearekin lotuta agertu ohi da. Ordezko irakasleen kasuan, beren posizioaren indartzea *irainen bat-bateko ezarpenaren* mekanismoarekin lotuta agertu zen. Egundak batetik bestera, bere diru-sarrerak asko jota 800 eurotara mugatuak ikusi zuen ordezkoen kolektiboak. Horren aurrean, USLOaz egindako irakurketa murriztailean zentimetro bat ere mugitzeko prest ez zegoen EHUKo Errektoretza. Eraginkortasunaren inguruko lehia, aldiz, protestaldia iraun zuen denbora osoan zehar lehian egon zen elementua izan zen. Izan ere, Prekarioen Koordinatortatik eta sindikatuetatik erantzukizun nagusia Errektoretzarengan kokatzen zen bitartean, honek, USLOaren aplikazioaren erantzukizuna, Espainiako Gobernuarengan kokatu zuen, bere jarreraren izan zitzakeen aldatetarik balizko erreforma legalen baitan kokatuz. Eta, aldi berean, arduradun politiko-instituzionalek, kasuan kasu, erantzukizuna leku ezberdinetan kokatzen zuten: Errektoretzaren baitan, Espainiako Unibertsitate Idazkariak egin bezala; edota, Espainiako Gobernuaren baitan, Hezkuntza Sailburuak egin bezala. «Pilota bestearen teilatura» botatzearen joko horren azken helburua, norberaren ardurak alde batera utzi (edota norberaren posizioa indartu) eta bestearengana kokatzea litzateke (bestearen posizioa ahultzea, alegia).

Lehia horretan, protestarako bitartekoek funtsezko papera jokatu dute. Atal metodologikoan aipatu bezala, hauek elkar-baztergarriak ez diren hiru irizpideren arabera antolatu litezke: *izaeraren* arabera, *barne logikaren* arabera eta *erradikaltasunaren* arabera. Lehenengoari dagokionez, zalantzarik ez dago kolektibo honen helburu nagusia kanpo errealitatearen eraldaketa zela; beren lan bal-

dintzen muturreko prekarizazioa ekarri zuen egoera iraultzea, hain zuzen. Baina bazegoen barrura begirako bigarren eginkizun bat, ziur aski horren agerikoa ez zena. Izan ere, unibertsitatea bezalako eremu lehiakor eta hierarkiko batean da goen atomizazio eta desagregazioa aintzat hartuta, egoera zaurgarrienean kokatzen diren kate luzearen azken katebegiak saretzea ere ezinbestekoa zen. Alde horretatik, kide hauei beraien bizipenak, esperientziak eta ikuspegiak partekatzeke espazio berriak eskaintzea, prekarietatearen aurpegiak mingarrienak bizitzen zituen kolektiboa artikulatzen hasteko aurrera pausu handia izan zen. *Barne logikari* dagokionez, ohiko hiru dinamika uztartzeko ahalegina etengabekoa izan zen: *kopuruarena*, gorago aipatu bezala, ordezkoen kolektibotik haragoko sektoreak inplikatzeko aukera emango zuten dinamika planteatuz; *konbentzi-menduarena*, planteatutako eskaeren zilegitasuna agerian utzi eta bizitzen ari zen injustizia egoera salatuz; eta *kaltearena*, Errektoretzak hartutako neurriak, ordezkoen kolektibotik harago, ikasleen ikaskuntza prozesuan eta gainontzeko irakasleen lan baldintzetan eragin zuzena izango zuela agerian utziz.

Baina baliatutako protestarako erreperitorioaren ikuspegitik, *erradikaltasunari* lotutako ezaugarrien azterketa interesgarriena izan daiteke. Tarrowek (2012: 183) aipatu bezala, «protesta formak garatzeko modu berrien asmakuntzaren bitartez, ezarritako ordena eraldatzea, ekintza kolektiboaren gakoa izango da». Alde horretatik, erradikaltasunak ez dio erabilitako moldeen gogortasunari (bakarrik) erreferentzia egingo; baizik eta protestarako bitartekoen eraberritzearen bitartez, ordenu hori aldatzeko gaitasunari. Esku artean dugun kasuan, protestarako bitarteko klasiko eta berritzaileen arteko uztarketa aurrera eramateko saiakera egin zen. Bitarteko klasikoei dagokionez, jada aipatu diren sinadura bilketa edota campusetan egindako mobilizazioez gain, 2023/2024 ikasturtean garatutako hiru grebak⁴ ekimen esanguratsuenak izan ziren. Jada nabarmendu ditugun arrazoiengatik, orokorrean, unibertsitatea atomizatutako eta desmobilizatutako esparrua izan da, ekintza kolektiboa garatzeko zailtasunak nabarmenak izanik; are gehiago azken urteetan, Bologna Prozesuaren eskutik sakondutako elitizazio dinamika ekarritako aldaketen ondorioz. Gorago aipatu bezala, horren erakusgarri litzateke EHU 2006tik unibertsitateko problematika espezifikoari lotutako grebarik burutu ez izana (Marauri, 2006). Arestian aipatutako ikasturteak, aldiz, bitarteko horren erabileraren eskutik jauzia ekarri zuen. Hurrengo atalean sakonduko dugun Koordinadora eta sindikatuen arteko harreman konplexuaren ondorioz, haien deialdiak ez ziren prozesu errazak izan. Izan ere, horrelako bitartekoen deialdi formala egitea sindikatuari bazegokien ere, hainbatetan Koordinadorak akuilu lana burutu behar izan zuen urrats hori emateko.

⁴ Hiru greba horietatik bi zuzenean lotuta egon ziren unibertsitatean ematen ari zen problematika espezifikoaren (urriaren 11an eta martxoaren 6an); hirugarrena, aldiz, zerbitzu publikoen alde ELAk, LABek eta Steilasek egindako deialdi zabalaren parte izan ziren, berak UPV/EHU n ezaugarritze propioa izan bazuen ere (martxoaren 12an).

Baina protestarako tresneriaren ikuspegitik, dinamika honen ekarpen interresgarrienetakoa Koordinadorak bera eguneratzeko egindako saiakera litzateke. Protestarako errepertorioa eguneratzeko egindako ahaleginaren erakusle batzuk baino ez dira klaseak ematen zituzten bitartean jantzita eramateko propio prestatutako kamiseta deigarriak; unibertsitateko prekarietatearen aurpegi ezberdinak erakusteko dokumentala (Ordezko EHU, 2024); edota, abeslari ezagun baten kanta bat moldatuz, egoera salatzen egindako bideoklipa (Prekarioen koordinadora, 2023)... Horien artean, ziur aski entzutetsuena, Bilboko itsasadarrean egindakoa izan zen. 2023/24 ikasturtean egindako lehen greba egunaren arratsaldean, Errektoreak itsasadarreko kaian ekitaldi irekia burutu behar zuen, Frantziako Kotsulak eta Espainiako Zientzia eta Berrikuntza Ministerioko Idazkari Orokorrak lagunduta. Ekitaldiaren hasieran, Koordinadorak, sindikatu batzuen laguntzaz, alokatutako batela baten bidez, bere aldarrikapenak helarazi zituen pankarta eta megafonoekin ekitaldiaren garapena baldintzatuz (Ferreira, 2023).

Aurreko paragrafoan, protesten izaera klasiko eta berritzailearen arteko dikotomia aipatu bada, protesten izaera *arautu* eta *disruptibo*aren arteko banaketa ere nabarmendu beharko litzateke. Lehenengoa, sistemak berak eskaerak bideratzeko eskaintzen dituen bideetatik garatzen dena litzateke. Protestarako jardueraren ikuspegitik, bide arautua (eskaera orriak, mobilizazioak, kartelak jartzea...) erabilieta izan ohi da, protesta egiten duenari ahalegin edota kostu txikiak eskatzen diona delako. Aldiz, hainbatetan, bere eraginkortasuna zailtzen izaten da. Disruptzioak, berriz, eguneroko bizitzaren funtzionamendu arrunta eragozteko luke helburu, protestagileek planteatzen dituzten eskaerei bide eman ezean, normaltasun hori nekez lortu ahalko dela irudikatzeko asmoarekin. Protesta arrakastatsua gauzatu nahi bada, ekintzaileek oreka puntua aurkitu beharko dute.

Aldiz, eraginkortasunaren eta legitimitatearen arteko oreka puntuaren zehaztapena, ekintza kolektiboa garatu nahi duten sektoreen arteko eztabaida gatazkatsuen emaitza izaten da. Talde bakoitzaren barruko posizioak homogeneoak ez zirela aintzat hartuta, Koordinadora eta sindikatuen artean (eta barruan) hainbat eztabaida jazo ziren puntu egoki hori definitzeko orduan. Eztabaida nagusi horietako bi, azterketa garaian greba deitzearekin eta azterketetako aktak ez sinatzearekin lotuta egon ziren. Gai baten eta bestearen eztabaiden atzean, jada aipatutako *kopuruaren* eta *kaltearen logikaren* inguruko dilema kokatzen zen: zer egin? Ordura arte bezala, kopuruaren edo indar bilketaren logika lehenetsi, ikasleek eta irakasle egonkortuek erakutsitako babesari helduz? Jakinda protesta bi molde horien bitartez tenkatzeak babes galera, edota, bigarren hipotesiaren kasuan, espediente diziplinarioei bidea irekitzen ahal zela⁵? Edota

⁵ Azterketen aktak ez sinatzearen protesta moldeak aurrekari zuzena zuen EHUren kasuan, hiru hamarkada lehenago irakasle-eredu propioaren alde garatutako borrokaren eskutik (ikusi «Historia de una pancarta», 1999).

kaltearen logika lehenetsi, unibertsitatearen eginkizun nagusietako bat (ikasleen irakaskuntza eta ebaluaziorako eskubidea) baldintzatuko zuen ekimenei bide emanez? Jakinda, horrek gatazkaren dimentsioa biderkatuko zuela. Eztabaida hauek ohikoak izaten dira ekintza kolektiboa burutzen dituzten mugimenduetan, hainbatetan beraien arrakasta edo porrotaren giltza horien inguruan hartzen diren erabakietan kokatzen delarik. Eskuaratean dugun kasuari dagokionez, Cohen eta Arato-k (1992: 672) aipatuko luketen «erradikalismo automugatuaren» aldeko apustua nagusitu zen, «ez-ohiko bitartekoen erabilera egoera zehatzera egokituz».

4.3. Antolaketarako bitartekoak: elkarrekin bai, baina nahastu gabe.

Jada argi gelditu den bezala, EHUko prekarietatearen aurkako dinamika honek, bi aktore nagusi izan zituen: Prekarioen Koordinadora eta sindikatuak (azken hauen artean, era ezberdinetako inplikazioa eman bazen ere). Lehenengoak, atal metodologikoan deskribatutako *sareen* antolaketa eredu «berritzaileari» erantzungo lioke; bigarrenak, aldiz, langileak antolatzeko *antolakunde* eredu tradizionalari. Sarrerako atal teorikoan aipatu moduan, hainbat autorek nabarmendu izan dute bigarrenen gabeziek eta ezintasunek lehenengoaren sorrerari bide ematen diotela. Aldiz, hainbatetan ere, ez da aintzat hartzen sindikatuak dituzten era askotariko bitartekoak izan ohi direla, antolaketa eredu berriei sostengua ematen dietenak (Della Porta eta Diani, 2011; Rucht, 1995). Gure kasuari dagokionez, bi antolaketa eredu hauek beraien indargune eta ahulguneak erakutsi dituzte, jarraian era laburrean azalduko ditugunak.

1. Taula

Sindikatuak eta Prekarioen antolaketarako bitartekoen alderaketa

	Sindikatuak	Prekarioen Koordinadora
Irismena	Sektore gazte eta prekarizatuenera iristeko zailtasunak	Sektore prekarizatuenera artean harrera ona
Protesta moldeak	Protestarako bitartekoen «errutinizazioa»	Ekintza kolektiboaren garapenerako «freskotasuna»
Antolaketa ereduak	Antolaketa hierarkizatua	Sare motako antolaketa; sare sozialak
Legitimitate	Langileen ordezkagarritasuna	Babesa bai, ordezkagarritasunik ez
Bitartekoak	Era askotariko bitartekoen jabetza (materialak, humanoak, ekonomikoak...)	Bitarteko materialik ez.

Iturria: Autoreek eginda.

Taulan antzeman dezakegun moduan, maila handi batean, egitura baten ahulgunea zena, bestearen indargunea izan zen. Bakoitzaren irismenari dagokionez, lan honen atal teorikoan aipatutako sindikalismoaren krisi estrukturalaren ezaugarri nagusiak unibertsitatean ere erreproduzitzen dira. Horien artean nabarmentzekoa, sindikatuen irismenaren dualizazioa: egonkortutako irakasle sektoreen artean artikulaziorako eta afiliaziorako gaitasun esanguratsuarekin, baina azken urte luzeetan inkorporatzen joan diren irakasle-iker-tzaile belaunaldi berrien artean eten nabarmena agerian utziz. Horien sakoneko arrazoien azterketan sartu gabe, Prekarioen Koordinadoraren arrakastaren ga-koetako bat belaunaldi horiek maila batean saretzen hasteko erakutsitako gai-tasunean legoke. Horretarako giltzetako bat sare mailako antolaketa eredu-a litzateke, non lotura fisiko eta digitalen arteko uztarketa malgu bat lortu den: lehenengoa, nagusiki, asanblada presentzialen eskutik; bigarrenkoa, bereziki sare sozialen bitartez (Twitter/X eta Whatsappeko taldeak, batez ere). Sindika-tuen hutsune horiek betetzeko asmoan datza, hain zuzen, sindikalismo intersti-zialaren xedea.

Sindikatuak, berriz, orokorrean izaera piramidala duen antolaketa ereduari erantzuten diote; hainbat kasutan, unibertsitatekanpoko ardura guneen aurrean kontu eman behar dutelarik. Aldiz, sindikatuak unibertsitateko langileen ordezkagarritasuna zuten, beraien ordezkariak, hauteskunde prozesuetan hau-tatuko ordezkari zilegiak izanik; eta, alde horretatik, Errektoretza taldearekin konponbide bat negoziatzeko legimititatea zuten antolakundeak izanik. Era be-rean, unibertsitatekan harago zeuden antolakunde batzuen parte izateak, pro-tekta garatzeko ezinbestekoak ziren bitarteko material, ekonomiko eta bestela-koen jabe izatea ere badakar, Koordinadorak nekez lor zitzakeenak bere kabuz. Antolakuntzarako bitartekoen ikuspegitik, Koordinadorak egin zezakeen ekar-pen nagusia, bertan parte hartzen zuten kideen giza baliabideei lotuta zegoen bitartean.

Indargunean eta ahulguneen arteko korrelazio honek, «elkarlan gatazkatsu» bezala bataiatu dezakegun antolaketa eredu bati bide eman zion. Sinbiosi ho-nek ekintza kolektiboa arrakasta maila handi batekin garatu izana ekarri zuen. Elkarlan hau, aldiz, hainbatetan zailtasunez beteta egon zen. Belaunaldi ezber-din osaketak, bakoitzaren ibilbidea eta erantzukizun ezberdinak, gatazka (eta balizko konponbideak) irudikatzen zuten ezberdinekin, zaildu egin zuten hainbat adostasun lortzea, bereziki aipagarri izanik greben inguruko deialdiak. Aldiz, esan dezakegu, horren guztiaren gainetik, bi aldeen partetik bazegoela «elkarren beharraren» sentsazio bat, bide komun bat partekatzea eraman zuena. Halaber, sentsazio partekatu horretatik sortutako koalizioak *elkar babeserako* izaera izan zuen, *babes koalizioaren* eta *koalizio sakonaren* artean kokatzen dena. Izan ere, eratutako koalizioak onurak ekarri ziren sindikatuari zein Koordinadorari, baina, era berean, ez zen egon koalizio berarekiko engaiamendu sakonik eragileen alde-tik, prozesuan topatutako zailtasunak zirela medio.

4.4. *Agenda setting*-a eta markoztatze prozesuaren azterketa

Atal honetan, lehenik eta behin, agenda politiko eta mediatikoan leku bat eskuratzeko garatu zen dinamika gogora ekarriko dugu, hau da, medioek inposatzen duten *agenda setting*a baldintzatzeko eginiko hautua. Arestian aipatu moduan, 2023ko ekainaren 20ean burutu zen Prekarioen Koordinadorak deitutako lehen asanblada Leioan. Handik bi asteetara, uztailaren 4an hain zuzen ere, lehen mobilizazioa deitu zuen. Jakina, hain denbora gutxian nekez lor zitekeen mobilizazio handirik, baina unearen hautaketak izan zuen garrantzia. Kurtso amaierako azken klaustroa deituta zegoen, eta horren aurretik Bizkaia Aretoaren aurrean deitu zen mobilizazioa. Adierazi bezala, jende gutxi bildu zen, baina komunikabide ugariaren arreta piztu zuen deialdiak eta, hala, lehen arrakala ireki zuen agenda mediatikoan. Bigarren urrats garrantzitsua aurreratu dugun 1.142 irakaslek eta ikertzailek sinatutako agiria izan zen, 2023-2024ko kurtso hasierarekin bat egin zuena. Komunikabide ezberdinek bere osotasunean jaso zuten 2023ko irailaren 8an eta beste batzuk zeharka eman zuten haren berri. Adierazi bezala, horrek agenda mediatikoan leku bat irabazteko legitimitate handia eskaini zion koordinadorari. Hirugarren urratsa, handik lau egunetara sindikatuek Prekarioen Koordinadorekin batera ikasturte akademikoaren ekitaldiaren aurrean deitutako mobilizazioa izan zen. Jada kasu honetan jende gehiago batu zen mobilizaziora eta berriz ere komunikabideen arreta jaso zuen.

Esan beharrik ez dago, sare sozialen erabilpena oso garrantzitsua izan zela honetan guztian, bai mobilizazioen berri emateko, bai iritzi artikuluaen aldeko babes zabala eskuratzeko edota egiten ari ziren lehen urrats horien berri emateko. Hiru hilabete besterik ez ziren igaro lehen asanbladatik, baina EHUⁿ hedatzen ari zen prekarietatearen salaketak bere tokia egina zuen jada komunikabide nagusietan. Esaten ari garen horren seinale da Eva Ferreira errektoreari prentsan eginiko elkarrizketa bat (El Correo, 2023/09/17), zeinean kazetariak galdetzen dion EHUko prekarioen egoeraz. Galdera egitearekin soilik kazetariak aitortzen du mahai gainean, agendan, dagoen gaia dela prekarietatearena. Horren aurrean, garaiko errektoreak EHUⁿ ordezkoen kolektiboaren existentzia ukatu zuen: «No existe un colectivo de sustitutos» (Fernández de Lucio, 2023). Ferreirak, adierazpen horrekin, markoaren ukaziora mugatu nahi izan zuen, baina badakigu, honez gero, markoaren ukapenak markoa bera indartzen duela (Lakoff, 2004).

Agendan tokia egitea garrantzitsua den bezala, zein markorekin eta horien erabilpena nola egiten den garrantzitsua izan ohi da. Adierazi dugu aurreko atalean zein bitarteko eta mobilizazio mota erabili ziren, batzuk klasikoagoak eta besteak berritzaileagoak. Orain berriz, dinamika eta egitasmo horietan garatutako diskurtsoen oinarrian zeuden markoak aztertuko ditugu. Jarraian, Prekarioen Koordinadorak kasik bi urteetan zehar argitaratutako edukia (artikuluak, prentsa oharrak, abestia, dokumentala eta sare sozialetako mezuak)

analisitik ondorioztatu daitekeen markoen sailkapenari bide emango diogu. Jakina, gurea ikerketa kualitatiboa da eta modu induktiboan ondorioztatu ditugu berehala aipatuko ditugun markoak (Clark *et al.*, 2021).

4.4.1. *Arrazoizkoak*

Kontuan hartu behar dugu markoen bidez deskribatu nahi dugun errealitate horren arrazoiak azaltzea inplizituki ardurak ezartzea suposatzen duela. Ildo horretatik azpimarratu behar dugu Prekarioen Koordinadorak garatutako diskurtsoan etengabe EHUKo prekarietate egoeraren gaineko arduradun nagusi bat izendatzeko saiakera dagoela, alegia, garaiko errektoretza taldea. Horretarako etengabe eta denboran zehar erabiliko den arrazoizko marko garrantzitsuen «USLOren interpretazio desagokia» izendatu dugun markoa litzateke. Batzuetan, *desegoki* hitza *oker*, *anker* edota bestelako adjektiboarekin ordezkatzeko da, baina funtsean ideia bera da garatu nahi dena: benetako arazoa ez dago USLOn, beronen irakurketan baizik. Egia da zenbait idazkietan salatuko dela USLOk berak ahalbideratu duela egoera hura eta beraz harengan jarriko da ardura ere. Beste une batzuetan, Jaurilaritza EHUKo soldatak finkatzen dituen dekretuen arduradun politikoa den neurrian, harengan jarriko da ere, zeharka, ardura. Baina, dena den, hasieratik amaiera arte bada modu iraunkorrean azpimarratuko den markoa: errektoretza taldearen ardura azpimarratu nahi zuen «USLOren irakurketa desagokia» markoa, alegia. Entmanek (2003) adierazi moduan, markoen maiztasunak edo iraunkortasunak garrantzia handia dauka eta, zalantzarik gabe, estrategia egokia izan zen markoztatze hau etengabe errepikatzea eta arduradunak uneoro argi eta garbi izendatzea.

4.4.2. *Diagnostikozkoak*

Gauza bertsua gertatzen da diagnostikozko markoei dagokionean. Berriz, markoztatze baten errepikapena nagusitzen da, zehazki, ordezeko irakasleek pairatzen zuten prekarietatea islatu nahi zuena. «800 euroko soldata» deitu dugun markoaz ari gara. Zenbait testuetan adierazten da prekarietatea ez dela berria, kontratu partzialak lehenago ere bazirela eta zenbait unetan, irakasle elkartu faltsuen prekarietatea salatzen da ere. Hala da, baina errealitate horien guztien gainetik «USLOren irakurketa desagokiak» sortuko dituen «800 euroko soldata» izango duten ordezkapenen errealitate espezifiko eta prekarioa da, bereziki, nabarmendu nahi izan zena. Hori da hain zuzen ere markoek egiten dutena, errealitatearen parte bat (eta ez bestea) aukeratu eta nabarmendu (Entman, 1993; Lakoff, 2004).

Aurreko kategorian bezala, hemen ere diagnostikoa egiterako unean adieraziko dira beste errealitate batzuk (beste irakasleen gaineko karga edota ikasleek jasotzen duten irakaskuntzan duen eragina) eta, jakina, horretarako erabiliko dira beste marko batzuk. Edonola, marko bat eta bakarra nagusitzen da hemen:

prekarietate hedatzen ari da EHUn, eta prekarietate horren adierazlerik egokiena «800 euroko soldata» izendatu dugun markoa da.

4.4.3. *Pronostikozkoak*

Pronostikoa adierazi nahi dutenen markoei dagokionez, ez da aurreko bi kategorietan ikusi dugun egoera bera emango, alegia, markoen erabilpen sakabatuagoa gertatuko da hemen. Batetik, eta oraintxe azpimarratu ditugun diagnostikozko markoekin bezalaxe, hauen proiektzioa irudikatu nahi zuten markoak erabili zituen Koordinadorak. Maila batean, «prekarietatea areagotuko da» izango da honetan erabiliena, baina adierazi behar dugu kasu askotan ondoko beste bi markoekin batera erabiltzen zela: «gainontzeko irakasleen karga handituko du» eta «ikasleek ere pairatuko dute», non prekarietateak irakaskuntzan izango zuen eragina salatu nahi zen.

Edonola, kategoria honetan erabilitako marko guztiak ez ziren ezkorrak izan, eta Prekarioen Koordinadorak ere bere diskurtsoan pronostiko baikorra irudikatu nahi zuen markoa ere erabili zuen haren sorreratik amaieraraino. «Konponbidea badago» deitu diogu marko horri, eta haren barnean kokatu daitezke Koordinadorak eta sindikatuak konponbiderako proposatzen zituzten hiru aukerak: USLOren beste irakurketa egitea (Granadako Unibertsitatea horren adibide), EHUKo soldatak zehazten zituen dekretuaren moldaketa edota USLOren moldaketa bera. Jakina, arrazoizko markoekin koherentzian, lehen aukera erabiltzea (beste irakurketa bat) izan zen ohikoena. Edonola, kasu honetan (eta marko pronostikoen zioa hori da) etorkizuna marraztea zen helburu nagusia, kasu honetan arazoa konponduta izango lukeen egoera irudikatzea eta horretarako bitartekoak eta ekintzak proposatzea. Arestian esan bezala, markoek ez dutelako soilik egoera deskribatzen, baita ekintzak preskribitu ere (Goffman, 2006).

4.4.4. *Motibaziozkoak*

Motibaziozko markoen helburua, kasu honetan, akzio edota ekintza horien alde egitea zen, borrokaren eta prozesuaren balorazio baikorra etengabe egitearekin batera. Zentzu horretan honoko hiru marko identifikatu ditugu aztertutako edukietan.

Batetik, «asko gara» deitu dugun markoa legoke. Kontuan hartu behar dugu hasiera batean prekarietate egoera berri hura zuzenean jasaten zutenak ez zirela asko, legearen onarpena eta interpretazioa berriak zirelako. Edonola, sindikatuaren laguntza eta aldeketasunak, artikulua sinatu zuten 1.142 irakasleen babesak edota lehen grebak izan zuen jarraipen masiboak, aukera eman zuten, modu iraunkorrean, EHUKo prekarietatearekin amaitzea helburu zuen borroka prozesu horren alde zeuden pertsonen eta kolektiboan aniztasuna eta indarra azpimarratzeko. Bestetik, eta aurreko kategorian adierazitako konponbidearen markoarekin oso uztartuta, «Borondate kontua da» deitu dugun bi-

garren marko motibazionala ere azpimarratu nahiko genuke. Honek borrokaren zentzuan eta bideragarritasunean jarri nahi zuen arreta. Eskatzen ari zena ez zen lortezina, posible zen, aukera ezberdinak zeuden eta, beraz, borondatean zegoen konponbiderako gakoa. Hala, helburua lorgarria bilakatzen zen eta horrela motibaziozko markoek eskaini behar dutena bermatzen zen: pronostiko baikorrak lortzeko indarra eta determinazioa. Hain zuzen ere, azken ideia horrekin lotutako beste marko bat ere identifikatu dugu, zehazki, prekarietatearekin amaitu arte «jarraituko dugu» markoaz ari gara. Normalean, erabilitako prentsa ohar eta diskurtso ezberdinetan amaiera aldean idatzitako eta motibazioa ere helburu duen markoa.

Aurreko atal guztiek erakusten dute, Prekarioen Koordinadorak garatutako diskurtsoan mota ezberdinetako markoak erabili zituela. Kategoria ezberdinetako markoztatzeak erabili izanak (eta haien uztartzeak) narratiba koherente, osatu eta iraunkor bat ahalbideratu zien. Laburbilduz, hala azaldu dezakegu narratiba edo diskurtso hori: Errektoretza taldeak eginiko «USLOren irakurketa desagokiak» ekarri gaitu «800 euroko soldaten» egoera prekario batetara. Horrek eragina du ordezkio irakasleengan, baina baita beste irakasle eta ikasleengan ere. Hala ere, «konponbidea badago» (ez bat, hiru baizik) eta «Borondate kontua» da. Beraz, marko horien uztartzea jasotzen dituen diskurtsoa da Koordinadorak eta sindikatuek deituriko edo garatutako ekimenetan etengabe errepikatu zen narratiba orokorra eta dudarik gabe ideien lehian garaile atera zena. Jarraian ikusiko dugun moduan, esaten ari garen azken ideia horren lekuko da errektoretza taldearen diskurtsoaren moldaketa eta, ondorioz, prekarietate egoeraren onarpena eta konponbide baten beharraren aitortza.

Kasu honetan ez dugu Koordinadorearekin egin bezala, kategoria bakoitza banan-banan aztertuko, eta adierazi berri dugun aldetari emango diogu garrantzia. Arestian esan bezala, errektoretza taldearen hasierako helburua arazoa ukatzea eta deszertifikatzea izan zen. Hasiera batean, kolektiboaren existentzia bera ukatu zuen jada aipatu dugun elkarrizketan, eta aurrerago arazoa minimalizatzen saiatu ziren: «Hay 40 personas con contratos precarios. El problema tiene la dimensión que tiene» (Ferreira, 2024). Alegia, haien hasierako marko diagnostikoa hauxe izan zen: ez dugu arazorik eta, ondorioz, ez da bilatu behar ez arrazoirik ez eta egoeraren arduradunik. Maila batean hori mantentzen saiatu ziren, baina, jakina, Prekarioen Koordinadorearen eta sindikatuen lanak egoera baldintzatu, gaia agenda mediatikoan sartu, prekarietatearen eta 800 euroko soldaten errealtatea gizarteratu eta ardura haien teiltuan zegoela lortzen hasi zenean, estrategia (eta diskurtsoa) ere aldatu behar izan zuen garaiko errektoretza taldeak. Horretarako, marko berriak behar ziren eta hauxek izan ziren diskurtso berria eraikitzeko adreiluak: «Arazoa USLOa da» (Diagnostikoa), arduradun nagusia hura legistlatu eta onartu dutenak (Arrazoa) eta konponbidea bere moldaketatik dator (Pronostikoa). Hain zuzen ere, diskurtso berri hau garatu ahal izateko, errektoretza taldearen bi ordezkari Unibertsitateetako Estatuko Idaz-

kariarekin bildu ziren Madrilén (2024ko martxoan) eta haren ostean hasi ziren diskurtso hori garatzen. Aitzitik, gutxi iraun zuen estrategia eta diskurtso berriak. Handik bi hilabete eskasera, Espainiako Kongresuan bertan, Estatu Idazkariak garaiko EHUko errektoretza egin zuen egoeraren arduradun nagusia, eta konponbidea bilatzeko askoz gehiago egin zezakeela adierazi zuen. Alegia, berriz ere errektoretzaren teilatura jotzen zuen pilotak eta horrekin Koordinadoraren «USLOren irakurketa desegokia» markoa indartzen zen.

Beraz, eta atal honen ondorio gisa, zera ondorioztatu dezakegu: EHUko Prekarioen Koordinadoratik garatutako diskurtsoak eta erabilitako markoek erabat baldintzatu zuten gaiaren gaineko ideien lehia, bai agenda mediatikoan leku bat lortzeko, bai arazoaren ezaugarritzean eta baita ere arduraren finkapenean. Horrek guztiak eragina izan zuen errektoretza berriaren aukeraketarako 2024ko hauteskunde prozesuan eta prekaritatea bera bilakatu zen hauteskunde kanpainaren gai garrantzitsuenetakoa.

5. Ondorio orokorrak

2023ko ekainaren 20ko asanbladaz geroztik, Prekarioen Koordinadora izango zenak lehen asanblada hura burutu zuenetik, hainbat aldaketa gertatu dira EHU-n. Beste hainbat gauzek berdin jarraitzen dute. Errektoretza aldaketa lehenengoaren adibiderik nabarmenena izan daiteke. Hain zuzen ere, irakasle ordezkoen inguruko ia bi urteetako protesta zikloak baldintzatutako testuinguru batean, Joxe Ramon Bengoetxeak buru zuen hautagaitzaren aldarrikapen nagusietakoa, irakasle hauek pairatzen ari ziren egoera iraultzea izan zen. Eva Ferreiraren taldearen gaineko garaipena erabatekoa izan zen, Errektore berriak kanpainan zehar hartutako konpromisoa berretsiz, agintea hartu zuenean.

Gauzak horrela, 2025eko maiatzaren 13an, Errektoretza talde berriak 2025/2026 ikasturterako ordezkapenak lanaldi osoan kontratatzeko proposamena luzatu zien sindikatuari, USLOren bestelako interpretazioa eginez (EHU, 2025). Akordio proposamena oraindik negoziatzen ari dira hau idazten ari garen momentuan, baina funtsean, indargabetu egingo da protestaldia piztu zuen faktore nagusia, alegia, ordezeko irakasleak lanaldi osoan ez kontratatzeko erabakia. Hala ere, egiari zor, lehengo egoerara bueltatzeak ez du prekaritatea ezabatzen. Oraindik orain, kontratu partzialeko zenbait ordezkapen mantenduko dira, doktoregaien egoera prekarioa edota irakasle elkartu faltuen egoera mantentzen da. Edonola, protestaldiaren helburuetako bat lortu dela kontuan hartuta, galdera nagusi bat planteatu daiteke: zer punturaino, sindikalismo intertzialaren esparruan kokatutako sare formako koordinadorak, egitura sindikal klasikoekin batera, garatutako protesta dinamika hau, arrakastatsutzat jo daiteke? Egindako analisian ondorioztatutako elementu nagusien arabera, jo dezagun galdera horren inguruko gako nagusi batzuk mahai gainean jartzera.

Lehenik eta behin, gatazka horren testuingurua ezaugarritu duen Aukera Politikoen Egiturari dagokionez, ondorio bikoitza atera daiteke. Batetik, elementu *egonkorrei* dagokionez, zalantza gutxi daude, gaur gaurkoz, instituzioen elementu estrukturalak bere horretan jarraitzen dutela. Errektoretzak interpretazio mesedegarriagoa eginagatik ere, USLOaren erredakzioak berdin jarraitzen du, instituzio autonomikoez ez dute oinarritzko araudirik aldatu interpretazio interesatuak saihesteko. Aukeraren egitura osatzen duten elementu *aldakorretan*, ordea, aldaketa nabarmenak eman dira; batez ere, birmoldatutako aliantza egituraren. Birmoldaketa hau, maila ezberdinetan eman da. Batetik, sindikatuen arteko harremana aldatu da. Duela bi urteko hiru blokeen araberrakoz zatiketa sindikal batetik, protestaldiak iraun duen bitartean, lau sindikatu nagusien arteko elkarlanerako jauzia egin dute. Bestetik, sindikatu horien eta Prekarioen Koordinadoraren arteko harremana aipatu behar dugu. Hasierako mesfidantzak alde batera utzita, elkarlan iraunkorra artikulatzea lortu zen epealdi horretan zehar, desmobilizatutako era ezberdinetako sektoreak ekintza kolektiboan inplikatu. Eta hirugarrenik, protesta egiten zuten sektore eta autoritatearen/Errektoretzaren arteko harremana ere aztertu behar da. Izan ere, unibertsitatean egondako aginte aldaketak aukera berriak zabaldu ditu aipatutako gatazkari konponbidea emateko eta harreman hori eraldatzeko.

Bigarrenik, protestarako erreperorioari dagokionez, azpimarratu beharreko lehen gaia unibertsitatean bertan emandako mobilizazioaren aktibazioa litzaiteke. Jada aipatu bezala, ekintza kolektiboaren garapena zailtzen duten egiturazko baldintzapenak tarteko (lehiakortasuna, elitizazioa, atomizazioa...), protestarako bideak zabaltzen dituzten bitartekoak mahaigaineratu dira ziklo osoan zehar. Horretarako gako nagusia, *legitimitatea* eta *eraginikortasunaren* arteko uztarketa egokia izan da. Lehenengoaren kasuan, ordezkoen kolektibotik harago kokatzen ziren sektoreak barnebiltzeko gaitasuna erakutsi da; bigarrenengan, gorentasunean eta kanpora begirako irudien oinarritzen den unibertsitatea bezalako instituzio batean, lan baldintzen ikuspegitik ematen ari zen bidegabekeria agerian utzi da. Nahasketa horrek bitarteko klasiko eta berriak uztartzen dituen arragoan hartu du forma, bi ereduaren arteko osagarritasuna agerian utziz.

Hirugarrenik, antolaketarako bitartekoen ikuspegitik, hemen ere berria eta klasikoaren arteko uztarketa egin zen. Koordinadorak beharrezkoa zuen sindikatuek eskura zituzten era ezberdinetako bitartekoak beraien dinamika gartzeko. Sindikatuek beharrezkoa zuten Koordinadorak sindikalizatu gabeko sektoreetan izandako harrera ona. Are gehiago, epe erdi-luze bateko ikuspegitik, sindikatuentzat, sindikalismoaren krisi estrukturalen elementuen eragina unibertsitatean mugatzeko, Koordinadora faktore erabakigarria izan zen; nagusiki, belaunaldi berriak jardura sindikalean inplikatzeari begira. Hartu-eman horretan, elkarren arteko mesfidantzak ekidite aldera, ezinbestekoa izan zen norberaren eginkizunak ondo zehaztea. Koordinadorak hasieratik argi utzi zuen, bere eginkizun nagusia aipatutako problematikaren sozializazio eta salaketari lotuta

zegoela; balizko konponbide baten negoziazioa sindikatuen esku gelditzen zen, beraiek langileen ordezkari legitimoak diren heinean. Zentzu horretan, atal teorikoan aipatutako *elkarren babesarako koalizio* ereduaren ezaugarri nagusiak betetzen dituen elkarlan eredu batekin topa gaitzek.

Laugarrenik, eta markoen analisiak erakutsi digun moduan, Koordinadorak garatutako diskurtsoaren bidez eraginkortasun handia eskuratu zuen, bai agenda mediatiko orokorrean espazio bat irabazteko eta bai gaia nahi zuen moduan eta nahi zituen arrazoi eta erantzuleekin markoztatzeko. Hau da, EHUko prekarie-tatearen egoera lehen lerroan jarri; egoera hori miseriazko soldata baten bidez erraz eta argi irudikatu (800 euro); eta garaiko Errektoretza taldea egoeraren arduradun egin; hortxe, beraz, eskuratutako hiru lorpen garrantzitsuenak diskurtsoaren analisiari dagokionez.

Gauzak horrela, Prekarioen Koordinadoratik garatutako sindikalismo interstizialaren esperientziak unibertsitate esparrua eraldatu duela nabarmendu beharko litzateke. Errektoretza talde berriak sindikatuei luzatutako proposamen, protestaldia piztu zuen prekarizazio neurri nagusia indargabetze bidean dago. Bestelako lan gatazka batzuetan gertatu bezala, esperientzia berritzaile hau, maila handi batean, sindikatu konbentzionalek unibertsitatean izandako gabezien ondorio izan zen. Aldiz, eredu berri hauek egitura klasikoak ordezkatu, edota elkarren aurkako arerio bezala irudikatzen dituzten ikuspegiaren aurrean, elkar osagarritzen duten eredu gisa ageri da esku artean izan dugun kasuan. Kasu zehatz batek eman dezakeenetik irakaspen orokorrak ateratzea lan nekeza izan daitekeela aintzat hartuta, esperientzia honek bi sindikalismo ereduaren arteko elkarlanerako bidea zabaldu dezake. Izan ere, batak eta besteak izan dezaketen gabeziak gainditze bidean jarri, eta lan esparruan garatu izan ohi den ekintza kolektiboa eraginkorrago bihurtzeko aukera zabaltzen baitu, XXI. mendeko sindikalismoari irekitzen zaizkion erronkak kudeatzeko eredu berri bat planteatuz.

6. Bibliografia

- ALCALDE-GONZÁLEZ, Verna, GÁLVEZ-MOZO, Ana eta VALENZUELA-BUSTOS, Alan (2024) «Social movement unionism in Spain's feminized precarious service sector: Criticism, cooperation and competition», *British Journal of Industrial Relations*, 62, 154-173. <https://doi.org/10.1111/bjir.12742>
- ALMOND, Gabriel eta VERBA, Sidney (1970) *La cultura cívica*. Madril: Foessa.
- BARRANCO, Oriol, ALÓS, Ramón eta MOLINA, Oscar (2022) «Innovar para representar: Trabajadores con dificultades de representación colectiva y estrategias sindicales en España», *Cuaderno de relaciones laborales*, 40(1), 115-137. <https://dx.doi.org/10.5209/crla.77452>
- BENFORD, Robert D. eta SNOW, David A. (2000) «Framing Processes and Social Movements: An Overview and Assessment», *Annual Review of Sociology*, 26(1), 611-639. <https://doi.org/10.1146/annurev.soc.26.1.611>

- BIGI, Maëlezig, COUSIN OLIVIER, Méda, DOMINIQUE, SIBAUD, Laetitia eta WIEVORKA Michel (2015) *Travailler au XXI^e siècle: Des salariés en quête de reconnaissance*. Paris Robert Laffont.
- CLARK, Tom, FOSTER, Liam, SLOAN, Luke eta BRYMAN, Alan (2021) *Bryman's social research methods* (6. ed.). Oxford: Oxford University Press.
- DALTON, Russell (1988) *Citizen Politics in Western Democracies*. Chatman. NJ: Chatman House.
- DELLA PORTA, Donatella eta DIANI, Mario (2011) *Los movimientos sociales*. Madril: Editorial Complutense.
- DIANI, Mario (2019) «Unions as social movements or unions in social movements?», in Grote, Jurgen R. eta Wagemann, Claudius (eds.), *Social movements and organized labour: Passions and interests*. Londres: Routledge, 43-65.
- EHU (2025, Maiatzaren 6a) «Arduraldi osoko irakasleen ordezkapenak lanaldi osora egingo dira», *Errektoretzaren berripapera*. <https://www.ehu.eus/eu/2025-maiatza>
- EHUKO 1.142 IRAKASLE ETA IKERTZAILE (2023, Irailaren 11a) «EHUn 'irakaskuntza eta ikerkuntza bikaintasuna' hilean 800 eurogatik?», in *Argia*. <https://www.argia.eus/albiste/ehun-irakaskuntza-eta-ikerkuntza-bikaintasuna-hilean-800-eurogatik>
- EHUKO PREKARIOEN KOORDINADORA [@EHUPREKARIOKOOR] (2023, Irailaren 27a) *Hezkuntza batzordean agerraldia* [Txioa]. X. <https://x.com/EHUPrekarioKoor/status/1707140013597888514>
- EHUKO PREKARIOEN KOORDINADORA [@EHUPREKARIOKOOR] (2024, Maiatzaren 8a) «Las palabras del Secretario de Estado de Ciencia, Innovación y Universidad han puesto de manifiesto la lectura restrictiva y errónea de la UPV/EHU que desde @EHUPrekarioKoor hemos denunciado desde el principio» [txioa], X. <https://x.com/EHUPrekarioKoor/status/1796553536521818462>
- ELORRIETA, Jose (2012) *Renovación sindical. Una aproximación a la trayectoria de ELA*. Tafalla: Txalaparta.
- ELORRIETA, Jose (2017) *Una mirada sindical contracorriente: Clase, territorio y nuevas alianzas*. Bartzelona: Icaria.
- ENTMAN, Robert M. (1993) «Framing: Toward Clarification of a Fractured Paradigm», *Journal of Communication*, 43(4), 51-58. <https://doi.org/10.1111/j.1460-2466.1993.tb01304.x>
- ETXEBARRIA, Eki eta LARRINAGA, Ane (2024) «Trade union renewal against a background of national conflict: the strategies of the trade unions ELA and LAB in the Basque country (1976-2008)», *Labor History*, 66(2), 261-278. <https://doi.org/10.1080/0023656X.2024.2378014>
- EUSKO JAURLARITZA (2023, Urriaren 18a) «Jokin Bildarratzek 2023-2026 aldirako Unibertsitate Sistemaren Plana aurkeztu du Eusko Legebiltzarrean», *Irekia*. <https://www.irekia.euskadi.eus/es/news/88883-jokin-bildarratz-presenta-plan-del-sistema-universitario-2023-2026-parlamento-vasco>
- EUSKO JAURLARITZA (2025, Otsaila) 85. *Euskal Soziometroa*. <https://www.euskadi.eus/txostenak-ikerketak/85-soziometroa/web01-a2lurral/eu/>
- FAIRBROTHER, Peter (2008) «Social Movement Unionism or Trade Unions as Social Movements», *Employ Respons Rights J*, 20, 213-220. <https://doi.org/10.1007/s10672-008-9080-4>
- FERNÁNDEZ DE LUCIO, Iñigo (2023, Irailaren 17a) «Eva Ferreira - Rectora de la UPV/EHU: 'Tenemos que formar a los alumnos para empleos que somos incapaces de atisbar'», *El Correo Español*. <https://www.elcorreo.com/sociedad/educacion/formar-alumnos-empleos-incapaces-atisbar-20230917002430-nt.html>

- FERREIRA, Maialen (2023, Urriaren 11a) «En el barco de la precariedad: profesores e investigadores de la Universidad pública vasca llevan su primera huelga al agua», *El-Diario.es*. https://www.eldiario.es/euskadi/barco-precariadad-profesores-e-investigadores-universidad-publica-vasca-llevan-primera-huelga-agua_1_10591455.html
- FERREIRA, Maialen (2024, Azaroaren 21a) «Eva Ferreira, rectora de la UPV/EHU: 'Hay 40 personas con contratos precarios. El problema tiene la dimensión que tiene'», *El-Diario.es*. https://www.eldiario.es/euskadi/eva-ferreira-rectora-upv-ehu-hay-40-personas-contratos-precarios-problema-dimension_128_11841076.html
- GOFFMAN, Erving (2006) *Frame analysis: Los marcos de la experiencia*. Madril: Centro de Investigaciones Sociológicas.
- GONZÁLEZ RAMOS ANA M^a, CONESA CARPINTERO, Ester eta VAYREDA I DURAN, Agnès (2016) «El impacto de las prácticas neo-gerencialistas en las trayectorias científicas de hombres y mujeres en tiempos de crisis», *Investigaciones Feministas*, 7(2), 67-87. <https://doi.org/10.5209/INFE.52882>
- GROTE, Jurgen R. eta WAGEMANN, Claudius (2019) «Passions, interests and the need to survive», in Grote, Jurgen R. eta Wagemann, Claudius (Eds.), *Social movements and organized labour: Passions and interests*. Londres: Routledge, 1-21.
- GUMBRELL MCCORMICK, Rebecca eta HYMAN, Richard (2018) *Trade Unions in Western Europe. Hard Times, Hard Choices*. Oxford: Oxford University Press.
- HYMAN, Richard (2001) *Understanding European Trade Unionism: Between market, class and society*. Londres: SAGE. <https://doi.org/10.4135/9781446217139>
- KELLY, Jon (2015) «Conflict: trends and forms of collective action», *Employee Relations*, 37 (6), 720-732. <https://doi.org/10.1108/ER-06-2015-0102>
- KIETSCHULT, Herbert (1986) «Political Opportunity Structures and Political Protest: Anti-Nuclear Movements in Four Democracies», *British Journal of Political Science*, 16, 57-85.
- KRIESI, Hanspeter (1995) «The Political Opportunity Structure of New Social Movements: Its Impact on Their Mobilization», in Jenkins, J. Craig eta Bert Klandermans, Bert (eds.) *The Politics of Social Protests*, Minneapolis, MI/Londres: University of Minnesota Press/UCL Press, 167-198.
- KUYPERS, Jim A. (2009) *Rhetorical criticism: Perspectives in action*. Lanham: Lexington Books
- LAKOFF, George (2004) *Don't Think of an Elephant!: Know Your Values and Frame the Debate: The Essential Guide for Progressives*. New York: Chelsea Green Publishing Company
- LAS HERAS, Jon eta RODRÍGUEZ, Lluís (2020) «Striking to Renew: Basque Unions' Organizing Strategies and Use of the Strike-Fund», *British Journal of Industrial Relations*, 59(3), 669-700. <https://doi.org/10.1111/bjir.12582>
- MARAURI, Iñigo (2006, Apirilaren 4a) «La huelga del hartazgo», *El País*. https://elpais.com/diario/2006/04/04/paisvasco/1144179613_850215.html
- MARTÍN, Antonio (2021) «Digitalización del trabajo: proto sindicalismo y cuasi-unionismo post-pandémico», *Anuario IET De Trabajo Y Relaciones Laborales*, 7, 9-32. <https://doi.org/10.5565/rev/aiet.91>
- MATHERS, Andy, UPCHURCH, Martin eta TAYLOR, Graham (2019) «Social movement theory and trade union organising», in Grote, Jurgen R. eta Wagemann, Claudius (eds.), *Social movements and organized labour: Passions and interests*. Londres: Routledge, 22-42.
- MATTONI, Alice (2018) «Conflict, competition and collaboration in the realm of labour: Trade unions and precarious workers in Italy», in Grote, Jurgen R. eta Wagemann, Claudius (eds.), *Social movements and organized labour: Passions and interests*. Londres: Routledge, 171-192.

- MC ADAM, Doug, TARROW, Sidney eta TILLY, Charles (2005) *Dinámica de la contienda política*. Barcelona: Editorial Hacer.
- MC COMBS, Maxwell E. eta SHAW, Donald L. (1972) «The agenda-setting function of mass media», *Public Opinion Quarterly*, 36(2), 176-187. <https://doi.org/10.1086/267990>
- NTM / EFE (2023, Urriaren 16a) «Bildarratz pide una moratoria en el sistema de sustituciones de profesores universitarios». *Deia*. <https://www.deia.eus/actualidad/sociedad/2023/10/16/bildarratz-pide-moratoria-sistema-sustituciones-7390111.html>
- OECD and AIAS (2021) *Institutional Characteristics of Trade Unions, Wage Setting, State Intervention and Social Pacts*. Paris: OECD Publishing. www.oecd.org/employment/ictwss-database.htm
- ORDEZKO EHU (2024, Otsailaren 29a) *Prekariatatearen aurpegiak* [Bideoa]. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=07pDhGeGLuA>
- PILATI, Katia eta PERRA, Margherita S. (2022) «Economic and political strikes: A social movement unionism hypothesis», *Socialism and Democracy*, 36(1-2), 39-63. <https://doi.org/10.1080/08854300.2022.2253073>
- POSSE, Derive APPRODI, Precarias a la deriva, Grupo 117, Colectivo Sin Ticket, Colectivo Situaciones et al. (2004) *Nociones comunes: Experiencias y ensayos entre investigación y militancia*. Madril: Traficantes de Sueños.
- PREKARIOEN KOORDINADORA (2023) *PREKARIOAK GREBARA #U11GrebaEHU* [Bideoa]. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=9ujWgoQqzng>
- PRIETO, Carlos (2024) *Las metamorfosis del trabajo y de la relación salarial*. Madril: Cata-rata.
- ROCA, Beltrán eta MARTÍN-DÍAZ, Emma (2017) «Solidarity Networks of Spanish Migrants in the UK and Germany: The Emergence of Interstitial Trade Unionism», *Critical Sociology*, 43(7-8), 1197-1212. <https://doi.org/10.1177/0896920516645659>
- RODRÍGUEZ, Vanesa eta GONZÁLEZ, Sergio (2022) «Opinión pública y confianza en los sindicatos españoles: contexto, indicadores y determinantes», in ARAGÜELLES, Ana Rosa eta Fernández, Luis Antonio (zuz.), *Acción sindical y relaciones colectivas en los nuevos escenarios laborales*. Zizur Txikia: Thomson Reuters Aranzadi, 67-90.
- RUCHT, Dieter (1994) *Modernisierung und Soziale Bewegungen*. Frankfurt am Main: Campus.
- RUCHT, Dieter (1995) «Parties, Associations and Movements As Systems of Political Interest Intermediation», in Thesing, Josef eta Hofmeister, Wilhelm (eds.), *Political Parties in Democracy*. Sankt Augustin: Konrad-Adenauer-Stiftung, 103-125.
- SCOTT, W. Richard (1981) *Organizations: Rational, Natural and Open System*. Englewood Cliffs: Prentice Hall.
- SIERRA, Galder (2018) *Euskal Protestaldia eta Demokratizazioa: Diskurtsoak eta Ekintza Kolektiboa 'Lizarra-Garaziko' kasuan (1995-2000)* (Doktore Tesia). EHU, Euskal Herria. <http://hdl.handle.net/10810/32448>
- SOLA, Jorge (2018) «La invisibilización de la clase trabajadora», in Tarín, Adrán eta Rivas, José Manuel (eds.), *La clase trabajadora. ¿Sujeto de cambio en el siglo XXI?*. Madril: Siglo XXI, 103-122.
- TAPIA, Maite eta ALBERTI, Gabriella (2019) «A toolkit of tactics or a strategic orientation? A critical assessment in the field of migrant workers campaigns», in Grote, Jurgen R. eta Wagemann, Claudius (eds.), *Social movements and organized labour: Passions and interests* (pp. 109-127). Routledge.
- TARROW, Sidney (1997) *El poder en movimiento. Los movimientos sociales, la acción colectiva y la política*. Madrid: Alianza.

- TATTERSALL, A. (2005) «There is power in coalition: a framework for assessing how and when union-community coalitions are effective and enhance union power», *Labour & Industry: a journal of the social and economic relations of work*, 16(2), 97-112.
- TILLY, Charles (1978) *From Mobilization to Revolution*. Reading, MA: Addison-Wesley.
- VANDAELE, Kurt (2019) *Bleak prospects: mapping trade union membership in Europe since 2000*. Brussels: ETUI. <https://ssrn.com/abstract=3450613>